

TOKIKOM

# karkara

**Orioko eta Aiako aldizkaria**  
2010eko urriaren 15a  
285. zenbakia. 22. urtea



## Citizen Kane, gazte baina aske

Udan kontzertu bira egin ostean, diskoa grabatu eta Aste Santuan bigarrena egitekotan dira. Orain artekoaz eta etorkizunaz hitz egin dute gurekin

**05**

**Orioko kontuak**

Nekazaritza Batzordea

**08**

**Kirola**

Giza-proba txapelketa

**11**

**Aiako berri**

Erriberatxo Plan Partziala

**25**

**Herritarra**

Patricia Balerdi

**Portu ERRETEGIA**

Santo Ereka Auzoa, 20  
943 89 14 31  
20809 AIA-ORIO

*Lurrikok berreserako dirutan  
niritako erretetik erretetik berreserako...*

*Sukalde eta bainuen erreformak*

**XANTI MUJIKA**  
**Igeltseritza**

699 46 76 21  
943 13 10 37

**RAMIRO**  
argazkiak  
ezkontza erreportajeak  
600 eurotik gora  
943 83 10 48 / 610 697 668  
www.fotoramiro.com



**TAILER MEKANIKOA**  
**MANTEROLA S/L**  
TOKADAKAK - BALBUENA

Santiago auzoa - 18 postakutza  
Tel. 943 830 743  
Fax. 943 134 634  
E-mail: mmanterola@euskalnet.net  
20 810 ORIO - GIPUZKOA

**TMM**

AENOR  
R  
E  
180 9000

Esatarako balbula  
AENCR kalitate zaurtaginduna

**TANATORIO ZARAUZ**  
EUROFUNERARIAS TALDEA

**Hileta eta zerbitzu orokorrak**

- \* Donostia eta probintziako ospitaleetan
- \* Aldiarako zerbitzuak
- \* Belatorio gelak
- \* Koroak, eskalak, tramitazioak...

Araba kalea, 35 - Zarauz

Tel. 943 88 94 30 / fax: 943 88 48 48  
e-mail: harraspil@tanospil.net

**Zaragueta Eskola Orrio**

telefonoa: 943 89 40 52  
e-mail: 012137aa@hezkuntza.net

**ASADOR XIXARIO**

Parke Guteran, Kalea 2  
TEL. 943 83 91 91 - ORIO

**ZAPATA KONPONKETAK**

Lan egutegia: 09:00 - 13:00 eta 15:00 - 19:00  
Lurruherriko kalea, 13/15  
Herriko ongarritza, Orrio

**XABIER URRETABIZKAIA**

- Instalazio elektrikoak
- TDT antenak
- Ateekin automatikoak

60 urte zerbitzua ematen

☎ 943 83 17 74  
Arantzale, 31 - 20810 ORIO

**sinergia** investigación fisioterapia

FISIOTERAPIA - Gerko Ir. Arriegi eta Naitale Wiesneren  
NUTRIZIONISTA - Gerardo Algorri

ibai ondo, 1, behe-oina | ORIO | 943 13 05 77 ~ 685 71 85 95

tel/fax: 943 89 00 69  
Bidaia kalea 4 - 20800 ZARAUZ

**URBIDE**

ITURGINTZA - BEROGINTZA  
GASA - BAINU ERAKUSKETA  
Prestazioa: Argizuzen Uda

**PATXI OLIDEN**

Hemengo hartaria  
Ereko produktua: tipoki, odolki,  
txakorra, txarrito, kokotak...

Eusko Gudari, 25 - Tel. 943 83 00 10

**URANGA**  
burdindegia  
Opari, menaje eta erretintak

fer.uranga@euskalnet.net  
telefonoa: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

**Sagasti LEIHOAK**

NEREA MIRALLES  
Tf / fax: 943 13 00 77  
sagastileihoak@telefonica.net  
Arantzale kalea, 88  
20810 Orrio (Gipuzkoa)

**SARASUA ERRETEGLA**

**Plater bereziak:**  
- Arrain zopa  
- Arrain eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29 - ORIO - Tel.: 943 83 00 05 / 943 13 25 32



# Gure auzoko Aizperrori

**1**

Aizperrotikan atera hitzan mutil jator ta piskorra. Aukeratua bizitzarako oso deporte gogorra. Arraunian segitutzeko utzi hukean aizkora. Lau Kontxa eta hainbat premio hirekin daduzkak, horra!

**2**

Jakin detenez pentsatu omen dek orain herria uztea, baina arraunen segitutzeko herbestera joatea. Jakina diat hirekin baten daramakela andrea. Espero diat Bizkai aldean zorte ona izatea.

**3**

Egia esan horrelakorik nik ez nin behintzat espero; herri guztia gelditu gaituk harriturikan zeharo. Uste gabeko zerbait okerra Bizkaian gerta ezker; bi alditan pentsatu gabe etorri hadi berriro.

**205**

## karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

**Kultur etxea**  
943 83 15 27  
karkara@karkara.com

**Editorea**  
Karkara taldea kultur elkarte

**Zuzendaria**  
Ana G. de Txabarri

**Erredakzio burua**  
Lore Berasaluze

**Erredakzio taldea**  
Irati Agirreazaldegia,  
Pat Cowie,  
Miren Etxeberria, Eli Lasa  
eta Jabier Zabaleta

**Publizitatea**  
Pat Cowie

**Publizitatearen diseinua**  
Lore Berasaluze

**Testuen zuzenketa**  
Miren Etxeberria eta  
Jabier Zabaleta

**Ale honetako laguntzaileak**  
Iker Gurrutxaga,  
Ander Larrañaga,  
Rikardo Uzkudun  
Ekain Zubizarreta,  
Antonio Zumeta

**Laguntzaileak**  
Iñaki Iturain eta  
Garbiñe Manterola

**Diseinua**  
Karkara taldea

**Banatzaileak**  
Oihana Genoba eta  
Ane Murillo (Orio)  
Eli Irureta (Aia)

**Inprimategia**  
Gertu Koop. E. (Oñati)  
Lege gordailua SS-346/90  
ISSN 1132-1105  
Tirada 3.200 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunik. KARKARAN argitaratutakoa berreman daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada.



### PUBLIZITATE PREZIOAK

#### Iragarkia alero jarrita

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa	204,00 €

#### Iragarkia behin jarrita

Modulu bat	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa	306,00 €

**Publizitatea kontratatzeko Pat Cowierekin hitz egin (695 78 07 20) edo karkara@karkara.com**  
**Prezio hauei BEZa gehituko zaie**

### LAGUNTZAILEAK



Eusko Jaurlaritza

**EUSKO JAURLARITZA**

Kultura Sailak  
diruz lagundutako  
hedabidea

## Hirugarren hizkuntza eskolan

Nire uste apalean, Eusko Jaurkitzen gobernatzan dauden bi alderdien arteko hitzarmenaren ondorioetako bat da gure euskara maitea ahultzea.

Bada, Euskal Herriko ikastetxe guztietan euskara indartu beharrean, hirugarren hizkuntza inposatu nahi digute: ingelesa, kasu honetan. Egun agintean dauden bi horien asmo bakarra baita gure gizartean euskarari lekua kentzea.

■ **Eukeni Santamaria**

## Inkisdore berriak

Azken KARKARAN irakurri dezakegu handiuste orojakilearen deia. *Sineskerien* kontra egin beharra dugu *Noulogeren Pasioaren* izenean. Zein da arrazoia? Batek daki! Agian, Jabier Zabaletaren ulermenetik kanpo geratzea.

Ulertzen ez duguna, badaezpada ere, etsai bihurtze hori, katolikoek ekarri zituen ohitura txar bat da. Pederasta Multinazional Klub horrek bere egia ulertezin dogmatikoak inposatu zizkigunetik nonahi ateratzen zaizkigu inkisidoretxoak, sineskeria ganoragabea zer den argitzera. Adibidez, *sendatze holistiko* (anatema), hau da, gizakia bere osotasunean (arloan fisiko, psikiko eta energetikoan) aztertzen duena, milaka urtetik hona kultura askotan osasuna ulertzeko modu bat dena. Ze arrisku, mesedez! Zertarako ditugu, ba, pilulak? Gibela sendatzeko buruan kalte egingo badigute ere, edo, hesteari laguntzeko, giltzurrunak izorratu.

Nikez diot inori esango zera edo beste sinesteko; tranposoak eta lapurrak ere nonahi aurkituko ditugulakoan nago: bai *sineskeria berrietan*, baina baita *zientzialarien* artean ere.

Garrantzitsua besteak errespetatzea da, ados egon ala ez; gainera, agian, bihar guk ere hala pentsatuko dugu.

Bestalde, esan nahi dut zientziari buruz dioena ere eztabaidagarria dela. *Mundua itxuraldatu* duela ezin da uka-

## Gutunerako oharra

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARA bidal daitezke posta elektronikoz honako helbidera: [karkara@karkara.com](mailto:karkara@karkara.com) edo gure lokalera eskura ekarri (kultur etxean) edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta norbait horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio. KARKARAK bere egiten du eskutitzak laburtzeko eskubidea.



## Txistuak sukaldeko plaka hor utzi duenari

Ez da hilabete asko Ubegun industrialdean garbigunea ireki dutela, baina itxura guztien arabera, herritar askok ez daki oraindik. Izan ere, baten batek sukaldeko plaka-bitrozeramika-beira jasotzen duen edukiontzia alboan utzi du botata. Horrelako zaborrak ez dira hor utzi behar, inolaz ere; garbigunera eramane behar dira.

tu, baina hobetu... Hor daude elikagaien kutsadura, ozono geruzaren zuloa, bonba atomikoa, Txernobyl, talidomida, DDTa, napalma, auto istripuak, beroketa klimatikoa, gerra kimikoa, kutsadura elektromagnetikoa... eta, nola ez, errauskailua (hori bai, *kea saltzea*). Esan dezakegu zientzia, berak sortutako arazoak konpontzeko ere ez dela gai, eta horrela doala mundua galbidean.

Baina, lasai, ez dut beren aurkako gututzadarik deituko, hitzaldiak eta ikastaroak egitera mugatzen diren artean.

■ **Asier Bastarrika**

## Begirunerik gabeko auto gidariei

Bizikletaz egin ohi dut Anibarko Portutik herrirako bidea; baina, sarritan, Dike pare horretan, bizikletatik jaitsi behar izaten dut. Ez nire gogoz, derrigortuta baizik. Nork derrigortzen nauen? Bizikletak kontuan hartu gabe, gune horian autoa aparkatzen duten begirunerik gabeko gidariei.

Badira auto batzuk eguna joan, eguna etorri, akats bera egiten dutenak. Akatsa edo arau hauste da, trafiko araudiaren arabera, gune horian aparkatzea. Hala erakutsi ziguten autoeskolan. Udaltzaiek, ordea, ez diete isunik jartzen Dike parean autoa uzten dutenei. Nik, behintzat, ez dut sekula autorik ikusi aurreko kristalean papertxo duela. Bizikletaz ez ezik, autoan ere ibiltzen naiz, bai. Ustez, beste batzuk baino begirune handiagoz. Beraz, auto gidari horiei esan nahi nieke aparkatzeko zailtasunak edo toki falta denok dugula; eta pare bat buelta gehiago eman behar badira, emateko; besteok ere hala ibiltzen gara eta.

Badirudi, bidegorria egiten dutenean, arazoa konponduko dela, baina bien bitartean, zer? ■ **Txirinduzalea**





# Aholku Batzordea sortu dute, nekazaritzako beharrei erantzuteko

Herriko baserrien fitxategia sortu dute, *eskola baratza* proiektua martxan jarri dute eskoletan eta herriko lurretan ekoiztutako produktuak merkaturatzeko sistema egokien bila ari dira

Urte eta erditik hona nekazaritza suspertzeko lanetan dabil Udaleko Ekintza ekonomikoetako eta Enpleguko zinegotzi Karmele Belasko eta ahalegin horretan sortu berri du, herriko baserriar eta nekazariekin batera, Nekazaritzako Aholku Batzordea.

Laborarien kezkak ardatz hartuta –Udalaren eta beren arteko harreman eskasa, auzo izaerarik ez izatearen arazoak, diru-laguntza txikiak...– hainbat proiektu dituzte martxan edo jartzeko.

## Baserrien liburuxka

Auzoetan biltzea izan da batzordeak bultzatutako lehen lana. Bostgunetan banatu dituzte Orion ditugun baserriak: Botaleku aldea, Sariako Ola, Txanka aldea, San Martin auzoa eta Benta Aldea.

Lan horiek eginda, baserrien datuak eta argazkiak jasotzen dituen proiektua osatzeko beka deialdia egin zuen Udalak eta Zarauzko lau lagunek osatutako taldeak egin du jada lan hori. 44 baserri

kontatu dituzte gurean eta horietatik 4 besterik ez dira bizi nekazaritzatik. Gainerakoan artean, erorita daude batzuk, nekazalturismo dira beste batzuk... Belaskoren hitzetan, ikaragarritzko lana egin dute bekadunek, besteak beste, baserrien historia, arkitektura, bertatik pasa diren familiak... jaso baitituzte.

Abenduaren 17an egingo dute lan horren aurkezpena kultur etxean. Proiektuaren nondik norakoak azaltzeko hitzaldiaz gain, jasotako argazkiekin osatutako erakusketa izango da.

Ondoren, udaberri aldera, liburuxka gisa argitaratu nahi du Udalak baserrien inguruko lan hau.

## Eskola baratza

Eskoletara eramatea izan da nekazaritza errotik suspertzeko, berriz indarrarekin jaiotzen laguntzeko, aukeratutako modua. *Eskola baratza* proiektuak eman die erantzuna. Era horretara, Zaragueta Herri Eskolak eta Orioko Herri Ikastolak

baratza bana izango dute, berek landu beharko dutena.

Bestalde, Biolur elkarteak sortutako material didaktikoa landuko dute eskoletan.

## Kontsumo taldea

Nekazaritza-produktuak merkaturatzeko saiakeretan ere buru-belarri dabilta batzordean. Herritarrei nahiz bisitariari herriko produktua eskura nola jarri erabakitzeke sortu nahi dute kontsumo taldea. Bitartekorik gabe, baserriarren eta erosleen zuzeneko harreman eta negoziaketaren bidez egingo litzateke salmenta era horretara. Belaskok esan digunez, baliabideak eta erraztasunak emanez gero, baserriar gehiago anima daiteke gehiago produzitu eta bertatik bertara saltzera, era duinean bizi ahal izateko diru-iturri izan dakion.

Hari berari tiraka, Sanikolas festetako neguko azoka indartzeko lanetan hasiak dira. Aurten pauso berri bat eman nahi dute, aurreko edizioetan ez bezala, baserriarrek berak jarritik berek ekoiztutako produktuak saltzen. Gainera, garaiko produktuekin osatutako bigarren azoka ere antolatu nahi dute udan.



San Nikolas festetako azoka indartu nahian, lanean hasiak dira Nekazaritzako Aholku Batzordean. KARKARA

# Gipuzkoako zalgurdien topaketa egingo da bigarrenenez gurean

Bisitari bereziak izango ditugu urriaren 17an, herriko kaleetan barrena. Zaldi gurdien bigarren topaketa antolatu dute igande horretarako eta makina bat *arre* eta *so* entzungo ditugu



Herrian barrena ibiliko dira zalgurdiak datorren urriaren 17an. JUAN RAMON GOIBURU

Zaldi-gurdiarekin paseatzen aritzen diren lau lagunek ekimenez –Zarauzko Luis Zabalza, Ordiziako Juan Goiburu, eta Orioko Pello Saizar eta Jesus Mari Alkorta–, topaketa izango da Orion urriaren 17an, Gipuzkoan dauden zalgurdiak herritarren bistan jartzeko. Guztira, probintzian 10 bat gurdi besterik ez daudela kontuan hartuta (gurea ez da zaldientzako lur egokia-eta) sei-zortzi espero dituzte antolatzaileek, horien artean, beste oriotar bat: Maddiolako Patxi Aranburu.

*Zalgurdien lagunak* izeneko elkarteak sortu nahi dute, era horretara jendarteran ezagutzera eman eta indartzeko.

## Egitaraua

Goizeko 10:00etan elkartuko dira zalgurdi-gidari guztiak kanpinaren parean. Herrian barrena ibiliko dira ondoren, 11:00etatik aurrera: kanpinetik Motondora joango dira aurrena, eta handik Orizarzarko hondartzara. Erakustaldiren bat edo beste egingo dute han eta, haiketakoaren ondoren, herrira itzuliko dira, Antillako hondartzan bukatzeko ibilaldia.

Behin zaldiek deskantsu hartuta, haurrak eta helduak gurdira igoko dituzte, 13:00ak aldera. Jesus M. Alkortaren hitzetan, jendea zalgurdiak ikusten ohitu gabe dago eta horietako batean ibiltzea gutxiren esku dagoen aukera da.

Bazkalondoren, zaldi-gurdiak nola gidatu behar diren erakutsiko die Oliteko Dabid Iriartek hala nahi duten zalgurdi-gidariei. Eskolak bukatuta, gurdi gainean ibiltzeko bigarren aukera izango dute hala nahi dutenek, 19:00ak arte.

## LABUR

### Kultura

#### Aranburu Euskadi Irratiko edukien arduradun

Karmele Aranburu kazetari oriotarra izendatu du Alberto Surio EITBko zuzendariak Euskadi Irratiko edukien koordinatzaile. Herri Irratian albistegietako zuzendari izan zen Aranburu eta *Berrikerketan* saioko gidari azken urteetan Onda Vasca Herri Irratia erosi eta programa kendu arte. Radio Euskadin eta ETB2n iritzi emaile aritu da hainbat saiotan.

### Hezkuntza

#### Ikastolak Eskola Iraunkorra agiria

Orioko Herri Ikastolak *Eskola Iraunkorra* agiria jaso du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren eta Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren eskutik. Ziurtagiria lortzeko, planifikazioaren antolaketa, hezkuntza komunitatearekiko komunikazioa, ikasleen partehartze autonomoa eta curriculumaren txertaketa hartu dituzte kontuan. Horri erreparatuta ebaluazio batzordeak erabaki du Ikastolan garapen iraunkorrerako hezkuntza kalitatea bermatzen dela.

### Euskara

#### Gurasoko mintzalagun abian da

Mintzalaguna egitasmoaren baitan, Zaraguetan eta ikastolan, Gurasoak Mintzalagun programa jarriko da martxan. Haurrak eskolan daudenean edo eskolatik irteetan euskaraz hitz egiteko 3-4 gurasoko taldeak osatzea da helburua. Taldeak osatzeko kontuan hartuko dira bakoitzarentzako egoki diren egun eta orduak, baita zaletasunak ere. Parte hartu nahi dutenek haurrek etxera eramandako orria ikastetxeko idazkaritzan utzi behar dute urriaren 22a baino lehen. Hil bukaeran hasiko dira taldeak elkartzeko.





Urriaren 18tik aurrera itxiko dute Txanka-hondartza errepidea, ibilgailuentzat. KARKARA

# Txanka eta hondartza arteko bidea itxita egongo da sei hilabetez

Errepidea zabaldu, bi bihurgune leundu eta bide bazterrean oinezkoentzako babestutako eta argizatutako bidea egingo dute, ibilgailu zein oinezkoentzat arriskuak gutxitzeko

Urriaren 18an, astelehenean, hasiko dira Txanka eta hondartza arteko errepidea berritzeko lanak. Ondorioz, autopistako ordainlekuko biribilgunetik hondartzako biribilgunerainoko tartea, ibilgailuen zirkulaziorako itxita egongo da, gutxiezen sei hilabetez.

Beraz, Udaletik, herritarrei, eta, batik batik gidariei, jakinarazi nahi diete herrira sartzeko edo herritik ateratzeko, lehenengo bideak erabili beharko direla; hau da, herria barruko kaleetatik zeharkatu beharko dutela.

Mariezkurrena enpresak egingo ditu lanak. Errepidea zabaltzea izango da lan nagusia eta horretarako behar diren lur sailak Udalak erosi ditu. Egun 6 metro zabal da errepidea eta gero 7 metroko zabalera izango du.

## Bihurguneak hobetu

Errepidearen zabalera ez ezik, trazatua ere aldatu egingo dute, eta horrela, hondartzatik Txankarako noranzkoan dauden lehen bi bihurgune estuak hobetu egingo dituzte.

Bestalde, errepide bazterrean oinezkoentzako babestutako bidea egingo dute, asfaltatua eta argizatua. Autobide aldeko biribilgunetik Anduko bidegurutzera arteko zatian 1,40 metroko zabalera izango du eta bi metrokoa bidegurutzetik orain espaloia dagoen tokira arte.

Lanen helburua da bide hori segurua goa izatea eta autopista erabiltzaileek Orioko sarrera-irteera gisa hartzea, herri barruko zirkulazioa arinduz. Oinezkoentzako ere egokituko da bidea, besteak beste, Itsaspe aldera joateko.

Itxaspaspe ere obretan ari dira eta Udaletik esan digutenez, Itxaspakoek landaturismo etxea egingo dute oraingo base-riaren eta ukuiluaren ondoan. Lehenengo solairuan sei logela eta jangela izango ditu eta behekoan bi apartamentu. Orain, ebakitako baso-zatia ikusi arren, ingurua egokitu egingo dute gero.

**Kutixi**  
kafetegia  
GOSARI GOWAK  
Artizaga 5, 20810 Oriu  
Tf: 943 13 12 17

**WEB**  
DISEÑU  
PROGRAMAZIOA  
JON CERÉZO OTANO  
TEL: 691-31-22-40

**GaleBask S.L.**  
Berrikuntzak  
Gremioen arteko koordinazioa  
638 610 349  
Tel./Fax: 943 134 717  
galebask@hotmail.com  
www.galebask.com  
Kale Nagusia, 2 -bajo  
20810 ORIO



Nekatuta, baina pozik bukatu zuten Heldu! taldekoek, tolosarrei aurea hartuta . KARKARA

# Heldu!rentzat izan da Aiako Giza-probako lehen txapelketa

55 plaza, 3 zinta eta 2,62 metrotan jarri dute marka oriotarrek eta ikaragarri gustura hartu zuten txapela. Tolosaldeko Aiztondo izan zen bigarren, 53 plaza pasatxo eginda

Lehenengo aldiz, Giza-proba Txapelketa antolatu zuen Aiako Idi Probak elkar-teak Aian, urriaren 10ean. Gizonezkoek osatutako Gipuzkoako lau taldek hartu zuten parte eta norgehiagoka bizia eskaini zuten: Tolosaldeko Aiztondo, Orioko Heldu!, Usurbilgo mutilak eta Urretxuko taldea.

Ezarritako araei jarraituz, hogeita minutuz jardun zuen lanean zortzi lagunez osatutako koadrila bakoitzak, 900 kiloko harriari tiraka. Kate soilean, harri zulotik pasata, heldu behar izan zioten, gainera harriari; hau da, harria metalezko egiturari zuzenean lotu gabe. Taldekide guztiek 680 kilotan sartu behar zuten gainera; kiloko bi kiloko gainzama eraman nahi ez bazuten, behintzat. Proba hasi baino ordubete lehenago kitatu zituzten pisuari dagozkion zalantza guztiak: 697 kilo kontatuta, 34 kiloko gainzama eraman behar izan zuten usurbildarrek. Gainerako hiru taldeak pisuan ondo sartu ziren: 649 kg Urretxuk, 675 kg Aiztondok eta 669 kg Heldu!k.

## Justu-justu

18:00etatik aurrera, zein baino zein gogorrago eta gartsuago aritu ziren denak, probalekuan bildu ziren 450 lagunen begiradapean. Urretxukoek hasi zuten proba eta 49 plaza eta 0,82 metro egin zituzten 20 minutuan. Aurreko taldearen marka hausteko asmoz ekin zion, gero, Aiztondo taldeak. 53 plaza pasatxo eginda, atzeko bi taldeei lan zaila jarri zien.

Dena ematera atera zen atzetik Usurbil, baina 47 plaza, 5 zinta eta 2,25 metrorekin konformatu behar izan zuen.

Azkenik, hiru aurkariak egindakoaren jakitun hasi ziren Heldu! taldekoak lanean. Jon Etxeberriak, Imanol Etxeberriak, Ander Zinkunegik, Iñigo Peñagarrikanok, Egoitz Makazagak, Aritz Lertxundik, Asier Lizarraldek eta Iker Manterolak osatu zuten Oriokoen taldea. Pello Saizar botileroaren animo-hitzei eta aholkuei jarraituz, 55 plaza, 3 zinta eta 2,62 metro egin zituzten eta txapela buruan jantzita utzi zuen taldekide bakoitzak probalekua.

## LABUR

### Saskibaloia Seniorren debuta

10 urteko hutsunearen ondoren, kantxara itzuli da berriz senior kategorian, Gipuzkoako 3. mailan, arituko den Orioko saskibaloia taldea -Alustiza autobusak Orio izenpean oraingoan-. Urriaren 8an izan zuten estreinako partida, Karela kiroldegian, 20:00etan hasita, Ordiziaren aurka. Lehia ondo hasi bazuten ere -kontrarioaren aurretik ziren lehen laurdenean- 54-47 galdu zuten azkenean. Izan ere aurredeboraldirik ez dute egin oriotarrek eta taldean jokatzeko hasi berriak dira. Datorren partida, bigarren jardunaldia, Villabonan jokatuko dute urriaren 17an.

### Atletismoa 3 hondartzetako krosa

Orioko 25 korrikalari eta Aiako 2 izan ziren urriaren 10ean Donostiako 3 Hondartzetako XXI Amstel Krosean. Asier Manterola Ondarra aiarra izan zen horien artean azkarrena, 39 minutu eta 43 segundotan bukatu baitzuen lasterketa. Orioko emakumezkoen artean, berriz, -ez zen Aiakorik animatu- Susana Martin Crespok egin zuen denborarik onena: 45 minutu eta 54 segundo.



# “Futbolaren itzalean daude kirol asko eta kirol egokitua, zer esanik ez”

## Edorta de Anta

Arraunlaria

Orioko Arraun Elkarteko Edorta de Anta tolosarrak arraunketa egokituko munduko txapelketan hartuko du parte, Zeelanda Berrian. Juan Angel Garmendia entrenatzailearekin aurki abiatuko da hara, ongi pasatzeko eta finalean sartzeko asmoz

### IRATIAGIRREAZALDEGI

Ezina ekinez egiten dela diote eta ezin duentzako arraunketa egokituan iaz hasi bazen ere, sekulako sasoi hartu eta azaroaren hasieran munduko onenekin izango dalehian.

#### Nola animatu zinen arraunera?

Juan Angel Garmendia *Xarpas*-ek lortu zuen ontzi batzuk Oriora ekartzea; ur gainean irauli ez eta egonkor mantentzeko ontzi bereziak dira, zabalagoak eta motzagoak; eta aulkia arraunlaria lotuta joateko modukoa da. Kirol Egokituko Gipuzkoako Federaziotik dei egin ziguten hainbat laguni, probatzeko. Lau hasi ginen iaz eta, pixkanaka, txantxetan hasi zen kontu hark aurrera egin du. Lau haietatik bi gaude orain eta ez dakigu beste inor animatuko den aurrerago.

#### Kirol egokituan aurrez ibilia zinen?

Orain dela lau urte lan istripua izan nuen eta, gero, nire kabuz hasi nintzen kiroldegian. Kirola beti izan dut gustuko eta badira bi urte kirol egokituan ari naizela. Gurpildun aulkiaren gainean palan ibili izan naiz eta oraindik jokatzen jarraitzen dut, neguan batik bat, arraun txapelketarik ez dagoenean. Beste zer-bait probatzeko arraunketari ekin nion. Ura gustuko dut; beraz, uretako kirola izanik, are gusturago nabil.

#### Txapelketetan noiz hasi zinen?

Iaz, Euskadiko eta Gipuzkoako txapelketak jokatu genituen eta gero Espainiako txapelketara joan ginen, arraun egokituan egiten zen lehenengora. Emaitza onak lortu genituen; orain Espainiako txapelketan denaren atzetik ni 2. izan nintzen eta Joxean Iglesias hirugarren.

#### Aurten emaitza onak lortzen ari zara.

Bai. Espainiako selekzioan sartu ahal izateko *open* batera joan ginen eta Espainiako txapelketarekin batera Italian izan nintzen nazioarteko proba batean eta hirugarren egin nuen Espainiako txapelketaren aurretik. Eslovenian, munduko kopan ere hirugarren tokian gelditu nintzen. Espainiako txapelketan beroa izan nuen aurkari eta asturiar batek irabazi zidan. Hala ere, beste proba batzuk egin dizkigute eta ni aukeratu naute munduko txapelketarako.

#### Munduko txapelketarako txartelaren atzean zer dago?

Prestakuntza asko; egunero lan egin behar da uretan zein kiroldegian. Entrenatzen eta arraunketan profesional aritzen naiz, baina kobratu ez dut kobratzen. Kirol asko futbola bezalako kirolen itzalean daude eta gurea, kirol egokitua, zer esanik ez.

#### “Gurpildun aulkiaren gainean palan ibili izan naiz eta oraindik jokatzen jarraitzen dut, neguan batik bat, arraun txapelketarik ez dagoenean”

“Egunero lan asko egin behar da uretan zein kiroldegian entrenatzen, eta arraunketan profesional aritzen naiz, baina kobratu gabe”

#### Kirol egokituan traba fisikoez gain bada beste oztoporik. Zein dira nagusienak?

Nik kanpotik etorri behar izaten dut eta gastuak nik ordaindu. Nire prestatzaileak ere bere lan orduetatik aparte orduak eskaintzen dizkit entrenatzeko eta txapelketetan laguntzeko. Gainera, kirol egokitua ezezaguna da jendearentzat. Orain telebistan lehiaketa zehatzen batzuk ematen dituzte, baina ezer askorik ez. Hedabideek laguntzea eta guk egiten dugunaren berri ematea ezinbestekoa da. Hainbat kirolatan lasterketarik txikiena irabazita tokia izaten da medioetan; ezinduok toki txiki bat lortzea zaila da munduko txapelketara iritsita ere.

#### Noiz arte arraunean?

Ahal dudanera arte, burugogorra baina. Nekatu eta uzten badut, atzetik jendea etortzea da nahi duguna. Arraun elkarteko eraikin berrian arraunketa egokituko eskola izango da horretarako.



KARKARA



KARKARA

## “Euskarri berriei heldu behar diegu, musika salduko badugu”

### Juan Rekarte

EHDEko eta ausArt Records-eko presidentea

Musika klasikoa ekoizten duen Rekarte Euskal Herriko Diskoetxeen Elkartearen presidente izendatu dute. Pasa den astean teknika digitalaren jardunaldiak antolatu zituen elkarteak. Etorbizuna non dagoen jakiteko elkartu gara Rekarterekin.

### PAT COWIE

EHDE 2003an sortutako elkarte da, eta partaide diren 12 diskoetxeek hainbat musika mota ordezkatzeko dute zazpi lurraldeetan: Agorila, ausArt Records, Elkar, Fermin Musik, GOR, GP Producciones, Keinu, NBMusika, Oihuka, Run Down Entertainment, Syntorama, eta Sonora Estudios.

### Zer egiten du elkarteak?

Industria sektorea ordezkatzeko dugu, hainbat erakunderen aurrean, esaterako, Euskal Herriko produkzioaren %85-90 ordezkatzeko baitugu. Ferietan ego-

ten gara (Midem Frantzia, Vich Catalunya...) ezinezkoa baita diskoetxe txikiak bertara joatea. Bestalde, informazioa eta formazioa eskaintzen ditugu. Eta bazkide bakoitzaren musika lagin bat jasotzen duen CD bat egin dugu erakunde ofizialek erabiltzeko edo ferietan banatzeko.

### Etorbizunik ba al du CDak?

Kontsumo handitarako, ez. Bide berriak bilatu behar dira dirua egiteko, musika produzitzen jarraituko badugu, eta denon artean ditugun balio handiko artiboak jendeari eskaintzeko. Euskarri berriei heldu behar diegu.

### Euskarri digitalak?

Tradizionalki euskarri gogorrean jarri eta saldu da musika, LP, kasete eta CDe-tan; baina, etorkizunean, digitalizazioari esker egingo da. Edozeinek ulertzeko, musika digitala entzuten da gaurko musika tresna txikietan –MP3, i-pod, telefono mugikorra— dena, era batera edo bestera, internetetik jaitzita.

### Zer lortu zen jardunaldietan?

Musicallyt/Aliado Digital-eko Juan Parezek eta The Orchard-eko Albert Torresek oso ondo aurkeztu zuten zer tresnak erabili musika merkatu berrietan saltzeko. Lutz Emmerichek, Espainiako Spottify-ko zuzendariak, berriz, ongi esplikatzen duen Spottify edota i-Tunes zer diren eta zer egin behar duten diskoetxeek bere musika bertan eskaintzeko. Bestalde, Josu Larrinagak, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak, musika objektu kulturaltzat harturik, 20. mendeko gauza dela eta 21. mendean musika industria beste ikuspuntu filosofikotik heltzeko beharra azpimarratu zuen. Eta mahai-inguruarekin bukatu ziren jardunaldiak.

### Sektoreko ordezkari asko etorri zen?

Bai. Gu kenduta, 35 ziren: Euskadiko Orkestra, Erresbil, Aztarna (Josean Goikoetxea), Arrebal Jazz, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Euskadiko Soinua, besteak beste. Eta benetan gustura gelditu ginen guztiok landutakoarekin. Merezi zuen, musika industria aldatzeko une kritikoa baitago, eta moldatzen ez bagara, jai dugu.



# Industriagune berria izango da Santioko Erriberatxo eremuan

23.300 metro koadro izango ditu guztira, bi partzelez, aparkalekuez, gizarte erabilerako lur sailez eta zelai guneez osatutako eremu berriak; gainera, errepidea konponduko da

Erriberatxo eremuaren –izen bereko baserriaren alboan– iparraldean duen bulegoa handitu eta egokitzeaz gain, industriagune berria sortuko du Amenabar enpresak. 23.330 metro koadro izango ditu, guztira, eta bi partzelaz gain –5.430 metro koadrokoa bat eta 1.570 metro koadrokoa bestea–, 92 aparkaleku eta 6.684 metro koadroko belardia hartuko ditu. Igor Iturain alkatearen hitzetan, gi-


zarte ekipamenduetara bideratutako eremuak ere izan behar ditu legez eta hortaz, kirol, aisialdi, eta kultura erabilerara zuzendutako hiru eremu erregistratuko dira. Hala ere, ez dira azken proiektu hauek gauzatuko, Iturainen ustez, duten kokapenagatik ez lituzkeelako inork erabiliko.

Gainerakoan, errepidea ere aldatuko da, bihurguneak pixka bat leuntzeko.

## Prozedura

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zenetik 20 egun pasata alegaziorik jaso ez denez, behin betiko onartuko du aurrena Udalak eta Diputazioaren esku jarriko da ondoren. Aldundiak onartuta, urbanizazio eta exekuzio proiektuak lantzen hasi beharko dute segidan, eta, orduan, erabakiko da zenbat enpresentzako lekua izango den.

Lanak bukatuta, 3 industriagune eta 70 enpresa izango ditu Aiak. Beste hainbat proiektu ere baditu Udalak eskuartean, tartean Zudugarai gaineko enpresen gunea txukundu eta handitzea.



Erriberatxo baserriaren alboan egingo du Amenabarrek industriagune berria. AIAKO UDALA

## LABUR

### Erromeriak

#### Denboraldi berria hastear da

Andatzako Erromeria Elkarteak antolatuta, urriaren 24an hasiko dira 2010-11 denboraldiko Aristerrazu plazako erromeriak. JL Laja eta Narbaiza trikitilariak izango dira lehen saioan eta, ohiko moduan, 18:30etatik 21:30ak arte arituko dira arinarin, fandango eta abar jotzen.

### Udaleko kontuak

#### Bi garbitzaile

Denboraldi baterako udal eraikinak garbitzeko bi langile kontratatu berri ditu Udalak. 35 lagunek eman zuten izena bere garaian, horietatik 33ren eskaerak onartu ziren eta, balorazioen ondoren, Estibalitz Urangak eta Ainhoa Olanok lortu dute lanpostua. Bietako batek –ala biek– eskaintzari uko eginez gero, hurrenez hurren, Karmen Egurenentzat, Begoña Iradiarentzat eta Ouafaa Kholdirentzat izango lirateke postuak.

### Jendartea

#### Santio Errekako etxebizitzaren zozketa

Santio Erreka auzoko 16 zenbakidun erakinek 1-C etxebizitzaren zozketa egin berri du Aia Lantzenek. Emaitzen arabera, Julen Agirre Olidenentzat izango da pisua. Honek etxebizitza hartu nahi ez badu, Josune Callejo Gurrutxagarentzat izango da. Ainaro Redondo Arruti da, bestalde, hurrengo ordezkoa. Hala ere, datozen 20 urteotan Aia Lantzenena izango da pisua atzera eskuratzeko eskubidea.

# Elkanoko San Pedro eliza

**A**iako Elkano auzoa Gipuzkoako auzorik ederrenetarikoa dugu. Duela 40 urte arte ez zegoen errepiderik eta bertara heltzeko Indamendiko mendi-hegalak zeharkatu behar izaten ziren.

Oso estilo gotiko zaharra duen Elkanoko San Pedro parrokia honek, Askizuko San Martin eliza eta hurbilago dagoen Urtetako San Sebastian ermita dartzkigu gogora. Elizaren barruan, erretabloan San Pedoren irudi bat da nagusi. Gaur egun tenpluak ez du baitaio-harririk, ez eta hilerririk ere, baina zaharrek beren aiton-amonengandik entzundakoaren arabera, antzina inguru guztiko parrokia izan zen, Zarautz, Getaria eta Aiako tenpluak baino are ar-

kaikoagoa, kanposantua bere hareharrizko horma batean ezarria zuelarik. Nolanahi ere, zaharberritze obra batzuetan parrokia horretako zoruan egingdako hobiraketak aurkitu ziren.

*Elkano-bitarte* baserrian bizi izan zen Jose Antonio Manterolak kontatzen zuenez, Elkanoko tenplua hiru *jentilek* eraiki zuten gau bakar batean. Erraldoietariko bat errena zen eta horregatik deitzen zioten *kojua*. Obra hasita zegoela, errenaren bi adiskideek ondorengoa komentatu zuten: *Honek traba egiten*

## **Inguruko elizak baino zaharragoa da Elkano auzokoa**

*digu hemen! Kojuak*, belarri zorrotza zuenez, entzun egin zien, bai eta ondorengoa erantzun ere: *Bai, baina nahiz eta traba egin, badaramatzat hirurehun kilo baino gehiago sorbaldan*. Bi esaldi labur hauek gure mitologiaren munduarekin jartzen gaituzte erlazioan, mitologia hau gure garaira ahozko tradizioaren bitartez iritsi baita.

Jentilaren irudia argi agertzen da Elkanoko parrokia eraikitzeko materiala biltzeko modua deskribatzen denean. Jentiletariko batek Garate menditik Arbastainairaino botatzen zituen harririk. *Kojuak* Arbastainaitik Elkanoko herriraino botatzen zituen. Hirugarren erraldoiak errenak jaurtitako harlanduak jasotzen zituen, eta harri horiekin eraikitzen zuen eliza.



## **Txokoak eta jendea** Eskolarteko kiroletako entrenamendu saioak

Eskolarekin batera hasi dira aurten ere entrenamenduak, oraingoz, futbola, pelota eta palarenak. Palan aritzen diren neskek ostiraletan izaten dituzte saioak, 16:30etatik 18:00etara. Hona hemen herriko gaztetxoak: Garazi, Maddi, June, Naroa, Aroa, Andrea, Ainhoa, Estitxu eta guztien atzean Patri entrenatzailea.





## TOKI ALAIKO NESKAMEAK ZUBIAN

Orioko zubian, Toki Alai jate-txea atzean zutela atera zuen argazkia 1950. urte inguruan hirukote honek. Toki Alain egoten ziren neskame hirurak; Eskoria-tzako Maria eta Orioko Paxita Peña eta Carmen Barrenetxea. Etxeko lanak egiteaz gain, zerbitzari ere aritzen ziren jate-txean. Argazkia atera zutenean Paxita aritu zen zerbitzari, soinean duen uniformeak erakusten duen moduan.

Zerbitzatu ondoren, jate-txean zikindutako mantelak garbitu behar izaten zituzten eta Toki Alaiko terrazan eseki gero. Garbigailurik ez eta labaderoan jarduten zuten oihalak eskuz garbitzen. Dikeko labaderorako joera zuten, baina neguan, epelagoa izanik, pilotalekua dagoen tokiko labaderoa erabiltzen zuten.

Toki Alai zegoen lekuan etxeak egin dituzte. Berrituz doa ingurua eta lehen-go oroitzapenetara zubia eraikita orduko garaiak eta eginbeharrak gogora ekarri dizkigu Paxitak.

ARGAZKIA: JUANA MARI ATORRASAGASTI

INFORMAZIOA: PAXITA PEÑA

## karkara

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri Karkarara eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

**SOLOZABAL**  
autoeskola

Fusko Gudari, 30-1. era  
telef: 943 83 08 12

**estilo berria**  
Ogitartokoak  
Plater konbinatuak  
Etxeko janaria  
Tintxoak

943 13 13 12  
Altor eta Gorra

**azkue**  
karrozeria

Ubegun industrialdea, 7  
T/fax: 943 83 51 86

20809 Aia-Orio  
Carroceriasazkue@hotmail.com



# CITIZEN KANE

“BIRAN GURE  
KASA AURRERA  
EGITEKO GAI  
GARELA IKUSI  
ETA IKASIDUGU”





Uztailean ibili ziren Citizen Kane taldekoak Iberiar Penintsulan eta Mallorcan zehar kontzertu bira egiten. Gazteak diren arren, gutxirekin aurrera irteteko gai izan direla argi utzi zuten etxetik kanpo emandako 11 egunetan. **Alexander, Eñaut, Jon eta Martinekin** izan gara birari buruzko xehetasunak jakiteko

**TESTUA: IKER GURRUTXAGA**  
**ARGAZKIAK: JOSEBA ARRONDO ETA**  
**IKER GURRUTXAGA**

16 urte ditu taldeko partaide gazteenak, Alexander Zubizarretak –baxua eta ahotsak–; zaharrenak, berriz, 20 urte beteko ditu hilabete barru eta Eñaut Martí –gitarra eta ahotsak– du izena. 18 eta 19 urte dituzte hurrenez hurren Jon Dorronzorok –bateria– eta Martin Zulaikak –ahots nagusia–. Taldearen izenean hitz egitea eskatu dute eta erantzunak hala eman dituzte elkarrizketan.

#### **Nola sortu zitzaizuen biraren ideia?**

Beti izan dugu kanpora joateko nahia. Kontzertuz kontzertu ibiltzen gara, gaz-

tetxeetan, aretoetan... eta bertan ezagunak egiten ditugu. Haien bidez lotu ditugu hainbat kontzertu.

#### **Nola hasi zenuten bira?**

Uztailaren 13an eman genuen lehen kontzertua Zarautzen; oso ona izan zen, gainera. Gauean atera ginen bidaian hurrengo egunean Mallorcarako hegazkina hartu behar genuelako Gironan. Instrumentuak sartzen ez ziguten utzi. Fakturazioa dela-eta tresna bakoitzeko 50 euro eskatu zizkiguten. Berez, esku-ko ekipaje gisa aukera dago igotzeko, baina ikusita kaxetan sartuta materiala nola erabiltzen duten, inolako konturik gabe, bada, erabaki genuen musika tresnak aurretik alkilatutako furgonetan

utzi eta oinarrizko gauzak hartuta Mallorcara joatea.

Gure asmoa edo esperantza zen hangoek utziko zizkigutela instrumentoak kontzerturako; anplifikadoreak han utziko zizkigutela bagenekien aurrez eta, hara iritsita, gainontzeko guztia ere utzi ziguten.

#### **Baina, laguntzaileak ere izan dituzue errepidean.**

Bai, Joseba Arrondo eta Iker Murua gurekin izan ditugu txofer lanetan. Taldeko kideetako batek ere ez daukagu gida-baimenik eta, ondorioz, baten bat behar, furgoneta alde batetik bestera eramateko.

Furgoneta ere ez zen gurea, lagun ba-



tek mesedea egin eta ibilgailuen alokairuko enpresek baino merkeago utzi zizun 11 egunez bere furgoneta.

Eta furgonetak hitz egingo balu... orduan bai izango zirela komeriak! Kar, kar!

### Zer moduzko esperientzia izan da Mallorcakoa?

Mallorcan Tunnel aretoan jo genuen. Oso dotorea zen eta gure itxurarengatik, bainujantziak, galtza motzak... ia ez ziguten sartzen utzi. Horren guztiaren ondoren, jendeak nahiko ongi hartu gintuen kontzertuan, nahiko gune turistikoa izan arren. Batik bat Mallorca bertako jendea egon zen entzuten.

Etxe bat utzi ziguten eta egunak gutxi jaten pasa genituen. Erosketak egin eta sua ere bageneukan, baina bizipena izugarria zen guretzat eta jatea ahaztu egiten zitzaigun barnean sentitzen ari ginen pozaren ondorioz.

Mallorcan hondartzan-eta ere gustura egon gara. Bi kontzertu ginen egiteko akirlan, baina antolatzaileak Londrese-ra joan beharra izan zuen eta bietatik bat ez genuen eman.

Bartzelonan ere jotzekoak ginen arren, bertan behera geratu zen kontzertua azken unean. Udan kontzertuak lotzea zailagoa izaten da, jende asko kanpora joaten delako.

### Coast to coast, Mediterraneotik Atlantikora egin zenuten salto.

Gero, Porton ere jo genuen. Casaviva izenekoa etxea zen, autogestionatutako etxea, kultur etxe eta gaztetxe arteko zerbait. Ongi antolatuta zegoen, sukaldea, liburutegia, kontzertua eman genuen aretoa... Jende askorik ez zegoen; ostegun batean jo genuen, arratsaldeko 19:00etan.

Kontzertuak eman genituen lekuetan afaria, lotarako lekua eta sarreretatik lortutako dirua eman ziguten.

Handik Galiziarra joan ginen eta han bi kontzertu eman genituen. Gainera, bizi-modua lasai egiteko etxea geneukan, la-



“Joseba Arrondo eta Iker Murua gurekin izan ditugu txofer lanetan. Taldeko kideetako batek ere ez daukagu gidabaimenik eta, ondorioz, baten bat behar furgoneta alde batetik bestera eramateko”

“Gironan, furgonetan utzi genituen instrumentuak, hegazkinean eramateagatik kobratu nahi zigutelako. Oinarrizkoa hartu eta halaxe joan ginen Mallorcara, bertan kontzerturako materiala utziko zigutenaren esperantzaz”

“15-20 minutuko kontzertuak onak dira. Errepertorio luzea ere badaukagu, baina jendea aspertzea ez da komeni. Mallorcan gehiago jo genuen, baina askorik ere ez. Gogoz gelditzen den jendea berriz ere etortzea da kontua”

“Orion badago musika jotzen duen jendea, baina beharbada antolakuntza falta da. Jotzeko zaletasuna egon badago, baina gu bezala kanpora joan direnak gure eran eta baldintzetan bira egitera gutxi izan dira. Gozategi edo Benito Lertxundi bai, baina beste modu batean”

“Euskadi Gazteak min handia egin du Euskal Herrian; orain denek nahi dute *Lady Gaga* bezalakoak izan. Jendeak ez du ikusten hasieran gogoz aritu eta sufritu behar dela, dena egina dagoenean jaso nahi izaten dute”



gun batena, disko-banaketa enpresa bat daukan neska batena. Harekin hitz egin genuen eta hark antolatutako kontzertuak. Bat Pontearaen eta bestea Marinen izan ziren, Pontevedran; lehenengo zentro-sozial bat zen, bigarrena etxe okupa bat.

Marinera joateko, gainera, teknologiari kasu egiteagatik, 185 km iparralderago dagoen auzo batera iritsi ginen. Lagunari deitu eta orduan jakin genuen egindako astakeria.

### Baldintza horietan nola ausartu zineten bira egitera?

Galdetu Berri Txarrak taldekoei nola joan ziren lehen bira egitera eta seguru asko antzera joango ziren, talde guztiak horrela hasten dira. Kultura zabaldu beharra dago eta hasieran sufritzen ere ikasi egin behar da. Tokatuko zaigu toki eskasetan jotzea, baina egunen batean, agian, iritsiko gara laguntza gehiago jasotzera.

Baina gure kasa aurrera egiteko gai gara erakutsi diogu gure buruari. Nola hala jan, gasolindegietan lo egin... baina goizero-goizero irribarrez eta umore onarekin esnatzen ginen. Ez dugu inolako arazorik izan gure artean, ez behintzat hasarretzeko adinakorik.

### Non ekin zenieten zuen musika ibilbideari?

Alexander eta Jon *Txakur eztula* taldean hasi ziren. Orduan Alexanderrek gitarra jotzen zuen eta Jon bateriarekin hasi berria zen. Baina taldea bidean geratu da...

*Restos sucios* taldearekin hiru kontzertu eman zituzten Eñautek eta Martinek, Joseba Verhegge lagun zutela. Horrek bateria jotzen zuen, Martinek baxua eta Eñautek gitarra. Orioko festetan eta lehen gazte festetan eta Zestoako gaztetxean jo zuten.

*Arrautz ustelak* eta *Uteh* taldeetan ere ibili da Eñaut. Azken horrekin, iaz ere, Galizia aldean izan zen, gainera. Aurten, *Azkaiter Pellox & The Road Band* taldearekin zuzeneko disko bat grabatu du.





*The sastre* taldean uda baten hasi ginen entseatzan eta punk estiloa lantzen genuen gehiago Eñautek, Martinek eta Jonek, Hodei Larrañaga zarauztarrarekin. Hark taldea utzi eta Alexander gurekin hasi zenean, doinu rock&rolleroagoak lantzen ditugu.

#### **Zein estilo jotzen duzue?**

*Citizen Kanen* hasierako hainbat kanta orain jo ere ez ditugu jotzen, oraingo estiloarekin bat ez datozelako. Gure estiloa nolabait esateko garage-punka dela esango genuke edo beste era batera esanda rock azeleratua.

15-20 minutuko kontzertuak onak dira. Errepertorio luzea ere badaukagu, baina jendea aspertzea ere ez da komeni. Mallorcan gehiago jo genuen, baina askorik ere ez. Gogoz gelditzen den jendea berriz ere etortzea da kontua.

Entzuleak harrিতuta gelditu ziren benetan eta izan zen diskoa ateratzeko laguntza emango ligukeela esan zigunik.

#### **Talderen izena, filmetik eratorria izango da, noski.**

Eskolan ikusi zuen Eñautek pelikula eta hortik taldeari izena jartzearena; inspirazio iturri izan zen berarentzat. Besteak beste, gizakiaren ustelkeria salatzen erabili zuen Orson Welles zuzendariak pelikula. Eta guk ere hori salatu nahi dugu.

#### **Nola ikusten duzue zuek musikagileen panorama?**

Euskadi Gazteak min handia egin du Euskal Herrian; orain denek nahi dute *Lady Gaga* bezalakoak izan. Jendeak ez du ikusten hasieran gogoz aritu eta sufritu behar dela, dena egina dagoenean jaso nahi izaten dute.

Sormen lana ez da gogorra berez, egun egokia aurkitzea da kontua. Gurean, Eñaut arduratzen da batez ere. Euskaraz letrak egin eta gero itzultzen ditugu ingelesera, hori baita gure abestien hizkuntza. Kanpoko musika gehiago entzuteko beharra sentitzen dugu.

## UDA OSTEAN DISKOA GRABATZERA

**D**iskoa dute buruan Citizen Kane taldeko partaideek. Uda pasa bezain pronto eskatu zuten txanda estudioan eta bertan leku noiz egingo dieten zain daude, grabatzeko.

Taldearen finantzazio lana ez da erraza, eta gehiago kostatzen da egun. Kontzertuetan ez dute xoxa askorik irabazi eta, kamisetak saldu dituzten arren, beren patrikatik jarri beharko dute grabazioa egin ahal izateko dirua.

Lan txukuna egitea da taldekoen helburua eta, horretarako, estudiora jo eta biniloa kaleratuko dute, make-ta editatu gabe utzi ostean.

Jendartean iritzi positiboak jaso dituzte oro har gazte oriotar hauek. Horren adierazgarri, MySpace atarian duten orrialdetik abestiak entzun ostean -[www.myspace.com/citizenkane](http://www.myspace.com/citizenkane)- hainbat editorek diskoa kale-ratzeko eskaintzak egin izana.

Esate baterako, Galizia eta Valentziako bi editorek egin zieten eskaintza, baina tentagarriena, Amerikako Estatu Batuetatik iritsi zaie.

Gauzak bide onetik badoaz, Gabonetarako diskoa kalean izatea espero dute eta 2011ko Aste Santuan, Europatik barrena bigarren bira nahi dute.

Europara eta, hain zuzen ere, Suediara joatea dute helburu. Bigarren biran ere Joseba Arrondo eta Iker Murua izango dituzte bidelagun.

Bitartean, kosta tailerrean jardungo dute entseatzan eta, aukerak sortzen diren heinean, kontzertuak emango dituzte eskaintzen dieten lekuan.

Hurrengo, urriaren 21ean, osteguna, iluntzeko 20:00etan emango dute, *Destino final* Bartzelonako taldearekin batera, Zarauzko Putzuzulo gaztetxean.

Taldeak behintzat ez du lo hartzeko asmorik eta, hartu duten erritmoari jarraituz, noraino iristeko gai diren erakutsi nahi dute, barmean daramaten energia guztia eszenatokietan kanporatuz.

Urte bukaeran, beraz, diskoa etxean edukitzeko moduan izango gara.



Esaterako, Euskadi Gaztea baino entzuten ez duenak 50 kanta berdinak aste osoan entzun eta gero, bere baitan duen kultura musikala ez du batere zabaltzen. Gure iritzi, jendea ahalik eta mota eta leku ezberdin gehienetako musika entzuten saiatu behar da; gauzak aldatuko badira bai, behintzat.

#### **Musika Orion. Nola ikusten duzue?**

Orion badago musika jotzen duen jendea, baina behar bada antolaketa falta da. Jotzeko zaletasuna egon badago, baina gure eran kanpora joan direnak eta gure baldintzetan bira egitera animatu direnak gutxi dira. Gozategi edo Benito Lertxundi bai, baina beste modu batean.

#### **Orion, musika taldeetan ez da emakumerik ikusten, eta zuen taldean ere ez. Zergatik izan daiteke hau?**

Hemen, norik beretzat jotzen du eta neskarik ere ez dago. Guk beste talde batzuekin ere eman ditugu kontzertuak eta ezagutu ditugu taldeak hiru neska zeudenak. Oraingo biran egon garen etxeetan ere baziren neskak musika kontuetan mugitzen direnak.

Kosta tailerrean gauden taldeetan ez dago neskarik. Orion musika entzun egiten dute sortu baino gehiago, ikusi dezakegunagatik. Baina lokal berrietako atea irekita daude haientzat ere.

#### **Eta orain artean, nolako kritikak egin dizkizute?**

Bada, ia kritika guztiak positiboak izan dira orain arte. Inguruko jendea izan da batik bat guregana gerturatu eta kritika egitera ausartu dena.

Baina hori ezin dezakegu esan ona ala txarra den guztiz. Mesfidatiak gara gertuko kritikak entzuteko garaian, ez musikaz ez dakitelako, baizik eta gertukoek beste begi batzuekin ikusi eta beste belarri batzuekin entzuten gaituztelako, agian.

Kritika horiek ezin da esan guztiz benetakoak direnik. Noizbait inor zerbait txarra esatera ausartu zain gaude...

# Udazkeneko birusa

**N**egar batean pasa dut gaurko eguna. Agur soineko arinei, hurrengo urte arte tirantedun kamiseta kuttunari, eta adio baita txaparroi ere. Den-denak kaxa batean sartu, garajetik eskailera igo eta armairuaren goiko zatian ezkutatu ditut. Ez ikustean gutxiago sufrituko bagenu, sikiera.

Ai amatxo maitea, konturatzera bertan dugu udazkena eta besapean ekarri du berarekin birus beldurgarri eta kutsakorra, bileritisa. Gaixotasun horrek bere hatzaparretan harrapatzen bazaitu zaila izango duzu ihes egitea. Ez-painetako perlen parekoa baita malapartatua eta behin azalduz gero sarri izango du batek bere bisita.

Bartzelonan bizi den lagun batek askotan esan ohi dit bera aspertu egingo litzatekeela Orio bezalako herri txiki batean biziko balitz, ezer gutxi omen dagoela eta egiteko horrelakoetan. Nire erantzuna beti berbera izaten da. Udaz-

ken parteko nire astebeteko eginbeharren egutegia ikusiko balu abiadura aurpegi konpletoa jarri eta segidan lasaitasun bila hanka egingo lukeela hiri handira, kar kar. Ni bileritisaren biktimitako bat bainaz.

Astelehenean Herrioko bilera, asteartean hitzaldi bat eta atzetik etxepeko bilera. Asteazkenean gazteen egoerari buruzko mahai ingurua. Ostegunean asteazkeneko hitzaldiaren balorazio bilera. Ostiralean Goikokaleko festak antolatzerako. Astea etorri eta astea joan mila istorio, mila kontu eta beste horrenbeste etxeko lan. Askotan pentsatu izan dut bileretan eta antzekoetan pa-

satako ordu kopurua zenbatzen hasi beharko genukeela. Eta, ordu kopurua zenbatu ondoren, gizarteari hotten faktura pasa beharko geniokeela ere. Baina krisian omen eta administrazio publikoaren diru-kontu liburuak gorri-gorri!

Nola egin bada horrelakorik gure lagune! Horren ongi tratatzen gaituzten udaleko hainbat agintariri eta langileri! Beren laguntza eskerga, borondatea, nola eskertu? Konturatu ote dira egunen batean herritar soilok egiten dugun lanari esker dagoela Orioko egutegia bete-bete eginda. Konturatu dira, noizbait, guztiz musutruk beren lanei mesede galanta egiten diegula kirol, kultur eta aisialdian lanean gabiltzanak. Gure egitekoan trabarik ez jarzea besterik ez dugu eskatzen gehiengotan, gainera.

Eta orain barkatu, alde egin behar dut biharko bilerako kontu batzuk prestatzera. Eta, zera, gogoratu, aurtengo ikasturtean balearen eguna. Beldurraaaaa!!!



**Herriar soilok egiten dugun lanari esker dago Orioko egutegia bete-bete eginda**

**URAITZ**  
Lurrindotegia  
Lurrindotegia  
Erlazionatzailea: 943 83 28 27

**PERTS ANAK**  
AKO MAZ  
Aluminio, PVC  
Venezianak  
Motorrak...  
Tel. 943 1329 01 Muzikaduta 600 70 52 27

Maidor Arrillaga Sarasola · 138. Kol. zenb.  
Arrantzale 63 · 20810 · Orio · Gipuzkoa  
Tel. 943 575 361  
**oinarri**  
PODLOGIA ZENTROA

**LUXARBE**  
Igeltseritza  
Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.  
Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe  
Lan txukuna eta merkea  
Tfnua: 943 83 59 00

**ODITZ**  
Ginma zabalera indartzen  
gaitza eta umakaren gain  
tel. 943 83 00 89

**libe**  
dietista  
nutrizionista  
Dietari profesionalizatua  
Orain hasi da  
Elkarrizketak, tratamenduak  
Komputergo kontrolatutako  
Mugaketa  
Orain hasi da ikasteko  
Planifikatzailea  
MEHREN PLANIFIKAZIOA  
**ZATUZ ETA ZAINDU OSASUNA!**

**MIRANDA**  
Lan txukuna  
Gaitza eta lurraren...  
belaunak, anis, lurrak  
egiteko dituzten  
Udazkeneko birusa: 1 +669 42 32 70n ZARAUTZ

**Orioko Ogia**  
**ORIOGI**  
OPIL OKINDEGIA  
frontoi ondoan  
Tfnua: 943 83 01 89



# Couchsurfing

**N**anduaren puzzle erraldoia-  
ren zati garrantzitsu  
bat sentitu nahiko ze-  
nuke? Jende desber-  
din eta paregabea  
ezagutu eta haiekin bidaiatzen espe-  
rientzia ahaztezinak bizi nahi dituzu?  
Etxean bertan edo etxetik kanpora, kultu-  
ra, ohitura eta hizkuntza desberdinetako jende-  
arekin elkartu nahi duzu? Bidai agentzia bate-  
ko iragarkia dirudien arren, E. Galdós emaku-  
me espainiarraren hitzak dira hauek,  
couchsurfing proiektua azaltzeko eskatu zio-  
tenean jarriak. Esandako hori egitea posible  
da, bai, jendearen abegikortasunari eta inter-  
netek ematen dituen erraztasunei eskerrak.

Proiektu berri xamarra da couchsurfing de-  
lako hau. 2004an sortu zuen Casey Fenton es-  
tatubatuarrak. Hoteletan lo egin beharrean,



jendearen etxeetan lo egiteko aukera honek  
ez zuen jende gehiegi konbentzitu hasie-  
ran, baina azken urteetan partaide ko-  
purua izugarri hazi da, jadanik 2,25  
milioi erabiltzaile baititu web orriak  
eta 4 milioi eta erdi elkarketa baitira  
couchsurfing-ek posible egin dituenak.

Nola funtzionatzen duen? Bada couch-  
surfing-ek aukera ematen dizu zu etxean har-  
tzeko prest daudenekin edo zure etxera etorri  
nahi dutenekin harremanetan jartzeko. Mu-  
sutruk denez, jendeak ezin du zutaz aprobe-  
txatu edo inongo irabazirik atera, beraz, jende  
desberdina eta kultura desberdinak ezagu-  
tzea gustatzen zaion jendea bakarrik topatzen  
da, jende oso abegitsua, irekia eta dibertigar-  
ria. Hauekin harremanetan jarri eta datak  
zehaztu besterik ez da egin behar merke-  
merke bidaiatzeko. Bidaiaren datak zehaztu, 234  
herrialdeetako bat aukeratu, bilaketa egin eta  
mezuak bidali besterik ez!

Adin guztietako jendeak har dezake parte,  
18 urtetik gora. Gazte asko daude, baina  
gehien 40-50 urte ingurukoek bidaiatzen  
dute; familia osoarekin ere bidaiatu daiteke  
eta hori errazten duten foroak ere badaude;  
eguna elkarrekin pasatzeko gera zaitzake ber-  
tako batekin, gida pertsonala eta laguna izan-  
go dituzu eta gauean hotelean lo egin dezake-  
zu; etxean jendea har dezakezu eta haiek eza-  
gutu eta inguruak erakutsi ditzakezu...

Nik udan hiru pertsona hartu nituen etxean  
eta Aste Santuan egin nuen nire lehenengo bi-  
daia, lagun baten konpainian, jendearen etxe-  
etan lo eginez. Etxean bi errusiar eta austra-  
liar bat hartu nituen. 4 egunetan harreman es-  
tua egin genuen, ederki konpondu ginen gure  
artean eta ingelesa praktikatzeko ere balio  
izan zidan. Bidaia, bestalde, paregabea izan  
zen. Tunisia bertako jendearekin ezagutzea  
izugarria izan zen. Hiru etxe desberdinetan  
lotan, jende piloaz ezagutu genuen, haien kul-  
turaz asko ikasi genuen eta momentu bikai-  
nak bizi izan genituen. Egin dudana bidaiarik  
onena izan zen dudarik gabe!

Animatu eta ez galdu aukera!

**Nire honetan**  
Lore Berasaluze

## Ikaragarria, tremendoa

**U**daleku itxiak: hitzak  
dioen bezala, bertara  
doazen haurrek ez  
dute bisitarik jasoko eta begi-  
raleen ardurapean egongo  
dira egonaldiak irauten duen  
bitartean. Egunerokotasune-  
tik alde egin eta naturarekin-  
harremanetan, lagun eta bi-  
zipen berriei itzuliko dira  
etxera haur eta gaztetxoak.  
Ez dirudi, hasiera batean,  
behinik behin, ulertzeko  
kontzeptu zaila.

Gauzake ez omen dira, or-  
dea, edo txuri edo beltz, eta  
hemen ere grisen paleta han-  
dia izan. Kontua da, uda ho-  
netan bertan istiluak edo se-  
sioak izan dituztela Txurru-  
kako aterpetxean: Munduko  
Txapelketaren baitako Es-  
painia eta Holandaren arteko  
futbol partida ikus zezaketen  
galdetu zuen, itxura denez,  
udalekuetako gaztetxo talde  
batek. Ezezkoa eman zieten  
begiraleek eta jolasean segi  
zuten gaztetxoek. Erantzun  
horixe bera esperoko nuen  
neronek ere. Telebistarik ere  
izaten ote dute, bada, orain?

Udalekuak bukatuta, or-  
dea, kexa sartu zuten gazte-  
txo horien gurasoek, Espai-  
niarekiko gorrotoa sustatzen  
ari zirela argudiatuta. Txun-  
dituta eta sinistuezinik hartu  
zuten berria begiraleek eta  
arduradunek -baita nik neuk  
ere-. Gipuzkoako Diputazio-  
ak berak ere esku hartu behar  
izan du.

Ikaragarria! Tremendoa!

**Couchsurfing-ek aukera  
ematen dizu zu etxean  
hartzeko prest daudenekin  
edo zure etxera etorri nahi  
dutenekin harremanetan  
jartzeko. Musutruk denez,  
jendeak ezin du zutaz  
aprobetxatu edo inongo  
irabazirik atera, beraz, jende  
desberdina eta kultura  
desberdinak ezagutzea  
gustatzen zaion jendea  
bakarrik topatzen da, jende  
oso abegitsua, irekia eta  
dibertigarria.**

lle antandena  
**MARIJO**  
Neska eta  
mutilentzat  
Ensko Gudari, 8 - Injo  
Tel. 943 13 47 29  
ORIO

**LURDES**  
MARIJEGIA  
Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

**MASAJISTA**  
**Kosue**  
Lunbalgia  
Kontrakturak  
Eskoliosia  
Drainatze linfatikoa  
Ziatika  
Abeslari kalea, 4  
Orio  
Tf. 943 57 74 26

Kinkladenda - Una arropa



www.lasnet.com/argine  
Tel. 943 13 48 89

25eko DESKONTUA FAMILIA  
UGARIEN TXARTELAREKIN

edariategia

# ANTILLA

justelak

Norstarri Kalea, 2 - TEL. 943 81 21 73

Allianz 

Marigre Zaldua  
aseguru agentea

Ibai Ondo, 10 behe oina  
telefonoa: 943 13 47 80  
fax: 943 83 97 52  
e-maila: zaldua.delacruz.p@allianz.es

uranga

gulozerbitzua



**Aliprox**

Eusko Gudari Kalea 13-15  
ORIO  
943 83 38 75

3.60

# zkue

Tf: 943 13 04 38

# 2GURPIL



Saxualdo 2 - 3 - 20810 Orre (Gipuzkoa)

TEL 943 838 880 [www.2gurbizikletak.com](http://www.2gurbizikletak.com) [bigurp33@hotmail.com](mailto:bigurp33@hotmail.com)

LORETXU JATEKIA



Eusko Gudari, 18 - Tel: 943 83 00 07

Lizaso  
dekorazioa



Eusko Gudari, 48  
Tel: 943 85 07 54 Fax: 943 84 81 10



# kutxa



Orioko  
Herri  
Ikastola

Guraso Kooperatiba  
ABESLARI KALEA, 8  
TEL: 943 83 47 04  
FAX: 943 13 09 38  
[orio@ikastola.net](mailto:orio@ikastola.net)  
[www.oriokoikastola.net](http://www.oriokoikastola.net)

Igo zaituz haize berrietara!

# Galema I



943890416 / 677149934  
[galema1orio@hotmail.com](mailto:galema1orio@hotmail.com)

Gabon

TABERNA

plater kroakak zapitxoak

Tfnoa: 943 83 06 09



AMILIBIA  
ONTZIOIAK, S. L.

Irakur pautuen proiektu  
eta lekuak

gizarteak behar duen  
arazoak

Olasoaga-ga auzoa, 52  
34 943 83 08 29  
faxa 34 943 89 40 81  
[amilibia@amilibia.com](mailto:amilibia@amilibia.com)  
[www.amilibia.com](http://www.amilibia.com)

Dorronsoro Denda

196 letik zure endean

AUKERA HANDIAGOA  
FRUTATEGIAN

Tel 943 83 09 37



Pinturak

# ELKAR

pintura eta paperatze lanak  
zoru leunketa

Aparatza lekuak  
943 83 08 45 / 943 60 21 35  
ZAPAJTZ

# ARKAITZ

## Taberna

Pintxoak,  
plater konbinatuak  
eta ogitarleko mundialak

ABESLARI KALEA, 4

Tel: 943 83 16 97



## Gaia emanda Gazteen lokalak onerako al dira?

*Gaztetxearen gaia pil-pilean, gazte lokalen alde on eta txarrak biak batera irakurgai.  
Hurrengorako iritzia zertaz eta nori eskatu bururatzen bazaizu, esaiguzu*

### Orioko gazteak lau paretan artean

**A**zken urteotan gure herriko hainbat eta hainbat gazte koadrilek beren txokoa eta intimitate osoa izateko asmotan, lokala hartzea erabaki dute. 15-16 urte bitarteko nerabeak dira gehienetan, joera hori hartzen dutenak; izan ere, garai horretan haur izateari utzi eta gazte izatera pasatzen gara; txikiagoekin egoteko helduegi sentitzen gara, baina zaharragoekin ibiltzeko umeegi. Hori horrela izanik, arazoa konpontzeko biderik errazena eta erosoena, lokal bat alokatzea izaten da. Aipatu berri dudan sententzia garbi ikusten dugu gure gazteek: 15-16 urte bitarteko gazteak lekuz kanpo sentitzen dira. Ametsan 10 urteko gaztetxoak bertara gerturatzen direnean; ondorioz, beren txokoa lortzeko asmotan, lokal bat alokatzea animatzen dira.

Lagun-talde bakoitzak bere lokala alokatzea alde onak nahiz txarrak ditu, bai lokala alokatzen dutenentzat eta baita besteontzat ere. Alde positiboak aipatzearen, batetik, lehen aipatu dudana bezala, gazteek lokala alokatuz, beren intimitatea lortzen dute, ez dute inor eurak kontrolatuko dituenik eta gustura sentitzen dira beren txokoa. Horrez gain, berena izanik, erantzukizunak hartzen dituzte: lokala garbitu egin behar dute, ordaindu eta horrez gain zaindu egin behar dute. Beste aldetik, elkarrekin denbora asko pasatzen dutenez, beren arteko konfiantza indartzen da, eta lehen ia konfiantzarik ez zuten pertsonekin izugarriko *feelinga* izatera iristen dira.

**Normalean, pare bat urte pasa ostean, lokala utzi egiten dute gazte horiek; izan ere, lokala hartzera bultzatu dituen arrazoi nagusia (lekuz kanpo sentitzearena) desagertu egin da; jada ez dira gaizki sentituko herriko tabernetan beste herriko gazteekin batera. Nolabait esateko, gertaera hori, lokala hartu eta pare bat urtetara uztearena, guztiz normala da, herriko koadrila gehienok egin baitugu horrelako zerbait, denok noiz edo noiz egoera berean egon baikara**

Baina dena ez da hain positiboa eta kokalaren kontu honek ere baditu bere alde negatiboak. Izan ere, lokala alokatzen duen koadrila ez da lokaletik asko ateratzen normalean; bere egunerokoa lau paretetara mugatzen du, batez ere neguan. Ez dira herriko beste koadrilekin nahasten, eta ondorioz ez dute harremanik gainontzekoekin; eta hori guztea bezalako herri txiki batean lastimada.

Horrez gain, oso pasibo bilakatu daitezke, eta eguneroko plana telebista ikustera edo PlayStationean jolastera murriztu dezakete.

Hala ere, normalean, pare bat urte pasa ostean, lokala utzi egiten dute gazte horiek; izan ere, lokala hartzera bultzatu dituen arrazoi nagusia (lekuz kanpo sentitzearena) desagertu egin da; jada ez dira gaizki sentituko herriko tabernetan beste herriko gazteekin batera.

Nolabait esateko, gertaera hori, lokala hartu eta pare bat urtetara uztearena, guztiz normala da, herriko koadrila gehienok egin baitugu horrelako zerbait, denok noiz edo noiz egoera berean egon baikara.

Hori horrela izanik, eta nahiz eta ni gaztelekuko langilea izan, guztiz ulergarria iruditzen zait jarrera hau eta denok gure partetik jarri beharko genukeelakoan nago gazte horiek erosoago sentitzea gure herrian; eta baliteke horrela berak lokala hartzeko beharrik ez sentitzea.

**Itziar Aiestaran, Ametsa gaztelekuko langileen izenean**



ORIO  
HIZKUNTZAK

Ibaiondo pasealekua 8  
943 05 88 26

# ORIO HIZKUNTZAK

Cambridge Unibertsitateko First Certificate eta Advanced azterketak prestatzeko taldeak ditugu

Eta gainera...

Kontratadun langileentzat dohako ingeles eta frantses ikastaroak

Izena emateko, edo betebeharrak eta baldintzak jakiteko, hurbildu edo deitu, asteleheneetik ostiralera, 17:00etatik 20:00etara.



Ordu eta erdiko saioa eskaini zuten bertsolari eta musikariek Buruhandienean . KARKARA

# Musika eta bertsoak erritmorik galdu gabe

## Kritika Bertso musikatuak

**Bertsolariak:** Uxue Alberdi, Ainhoa Agirreazaldegi, Beñat Gaztelumendi, Iñaki Gurrutxaga.  
**Musikariak:** Unai Arzamendi, Imanol Ugarte, Urriaren 11n, Goiko Kaleko festen baitan, aurkeztua.

L arunbat gaua zen Goiko Kalen, euria goitik behera... eta Buruhandieneko denda zena leporaino beteta: Goiko Kaleko festak. Gaijartzaile bat, bi musikari, lau bertsolari eta Hamaika Bertute. Hasiera hasieratik, gai jartzetik hasita, gitarra eta bajua astitzen hasi ziren Unai

Arzamendi eta Imanol Ugarte oñatiarrak, hori bai, baju baju, hitzak argi eta garbi entzuteko moduan.

Egoitz Aizpuruak hartu zituen patroilanak, bertsolariari gaiak jarritz, eta entzuleei laguntzeko eskatuz: Volando voy, No woman no cry, Ilun ikarak, Lili Marleen, Blowing in the wind...

Bertso paperak ere izan ziren tartean: Ainhoa Agirreazaldegiren sorta bat, (publikoari banatu eta denek batera abestutakoa) eta Iñaki Gurrutxagaren beste bat, orain dela sei bat urte Literatur Lehiaketarako idatzitako Orioko txoko eta jendeari buruzko bertso inpresionistak.

Orokorrean, entzuleak oso gustura egon zirela iruditu zitzaidan. Batzuk parte hartze aktiboago batean, bukaerak errepikatuz, txaloak joaz; eta beste batzuk ez hainbeste, baina gustura aldi berean. Ez da erraza izaten horrelakotan orekari eusten: parte hartu nahi duen jendea animatu baina entzutera etorri dena deseroso sentitu gabe. Eta asmatu zuten.


Ordu eta erdi pasatxo iraun zuen saioak, ofizio ederrak entzun genituen eta saioak ez zuen inoiz erritmorik galdu. Goragu ta gitarrak!

RIKARDO UZKUDUN

**Ikasleak idazle**  
Ander Larrañaga

## Hondartza

**H**ondartza lehen oso ondo zegoen eta askoz ere garbiagoa zen, baina, orain, hondarra zikina dago eta ura ere ez da garbia. Zikinkeria aparte jarrita, marea behera denean, *orillerak* forma arraro bat hartzen du eta horregatik olatuak ez dira ondo leher-tzen. Nire ustez, hori kon-pontzeko irtenbiderik onena atzean dagoen



hondarra har-tzea eta aurrera eramatea da.

Zikinkerietara bueltatuz, gar-biketa gehiago egi-tea ez zen gaizki etorriko eta hondarra aldatzea ere ez.

Udaran bisitari arrisku-tsuak etortzen dira, marmokak adibidez, karabela portu-galdarra, esaterako. Hori saihesteko modurik onena, Getarian dagoen bezala, sare bat jartzea litzateke; hori proposatzen dut, segurtasun handiagoz bainatzeko.

**Hondartzan garbiketa gehiago egitea ez zen gaizki etorriko eta hondarra aldatzea ere ez**

America, Beraz, Ingalatza, Italiano, Ayacucho, Gueyana, Turkiyga, Kekchi, Kazan, Kreyol, Kreyol, Suakri, Filipin, Pasaun, Araba, Kikila, Punjabi, Gatala, Tsimba, Roman, Mili, yenzali, orio.auzoko@topagunca.org



## » INKESTA

**Zer iruditzen zaizu Karkararen diseinu berria?**

57 erantzun jaso ditu galderak. %43ri egokia iruditu zaio, %47ri desagokoa, %5eri bost axola zaio kontua eta %3k ez daki zer esan.

**HURRENGO GALDERA****Etxebizitzaren prezioa gehiago jaitsiko dela uste al duzu?**

Erantzun ezazu [www.karkara.com](http://www.karkara.com) webgunean eta emaila 287. KARKARAN argitaratuko dugu.

## » OSPAKIZUNA

**Valentzian oporretan**

Zaharren Babes Lekukoek antolatuta, Valentzian izan ziren herriko 32 lagun irailaren 20tik 27ra, biak barne. Besteak beste, Albuferan, Elxen, Denian eta Gandian izan ziren eta kultura irteerak ere egin zituzten Zientzien museora, Oceanograficera eta San Jose Leizeetara. Argazkia, berriz, Neptunoren omenezko eskulturaren aurrean atera zuten. Ikaragarri gustura ibili omen ziren bidaiari eta hurrengo noiz iritsi zain daude.

## » ZORIONAK!

*Babes Lekukoek*

Urteak joan, urteak etorri, hainbat eta hainbat ekintza eta jolas antolatzen ditu Zaharren Babes Lekukoek, herriko adinekoak ez daitezen asperitu. Eskurtsio ugari egiten dituzte –hilean bat gutxienez, bai– eta urtean behin, aste bate kanpoan pasatzen dute.

Lauzpabost bat urte ere badira, astero bingo saioak antolatzen dituztela. Txori txiki batek batzuetan garrantzirik gabeko liskarrak ere izaten dituztela esan badigu ere –bingo ohiukatu izan omen dute, txarte teko zenbaki guztiak kantatu gabe daudela–, primeran pasatzen dute arratsaldea.

Hitzaldiak ere antolatzen dituzte, aste honetan bezala. Zorionak eta segi horrela!

**"JUAN LARRAZPU" ERAMUNTZAK, S.L.**  
(Jon Anzu)

Baselario igailarria eta eguzki estokurietan aditua

Elaboratzen dituztenak:

- bitartak
- bitartak
- sukaltzak
- orna gela...

TEL: 965 718 965 (Jon Anzu) Estropalean, 30-32 Orto

**iñaki argazkiak**  
**caperochipi**

ezkontzako asmorik bai?

[www.ikapero.com/ezkontzak](http://www.ikapero.com/ezkontzak)  
659378751  
ikapero@ikapero.com

**islada**  
BESERINA ZAHARRA

Sbeila De Miguel - Saray Cendoya

Balazoren katea, 2 beheko Orio 20800  
Tel: 943 133 566  
e-mail: [isladareto@hormail.com](mailto:isladareto@hormail.com)

Faroeko bakailaoa daukagu

**ITSAS MENDI**

gustuziak

Txoko Guter, 5 Tel: 943 24 00 74 Orio

**KOLON TXIKI**  
urteko jatorria

Herriko Erparantza, 4  
ORIO  
Tel: 943 83 00 44

**TUZALA**

kartela jokatzeko  
guztiz

tel. 943 83 12 59

**HAIZE BERRI**  
talarna-jatorria-kalitate

Plater konbentzionalak,  
bakarkak,  
harbargorak,  
rosiak,  
eguneko menua...

eta etxera eramaitzeko sarbitzua!

Batasunaren 1. etaba 1 99 40 13 8 22. Orto 2. etaba. Orio





Meza Corazon Santotik eman zuten Font y Andreu gotzainak eta J. M. Astigarraga Orioko bikarioak . LITURAIN

# Adoracion nocturna

## Oroimenaren kutxa

**G**aur egun larunbatean gaupasa egiten duenak tabernaz taberna egin ohi du. Garai batean, elizak gizartearen zuten indarra askoz handiagoa zenean ere egiten ziren gaupasak, baina elizan, otoi-tzean. Hilean behin egiten zen, larunbatez, gau osoko elizkizuna. Zahar eta gazte, gaupasa egiten zuten elizan, ordubeteko saiotan txandaka errezatuz goiza iritsi arte. Goizeko zazpietan mezarekin bukatzen zen. *Adoracion nocturna* esaten zitzaion.

Aurten bete dira 100 urte Euskal Herrian lehenengoak egin zirenetik, 1910ean, adi-

bidez Oñatin. Munilla gotzainak abuztuaren 15ean Oñatin izan da mendeurrena ospatzen. Zarautzen 1952an egin zuten. Urte hartan Zarautzen bat egin zuten elizkizun horrek eta urtero egin ohi zuten *jurabanderak*, Orioko Goiko Gaínean egon ziren soldaduekin egin ohi zutena. Biak batera ezin zirela egin eta, urte hartan *jurabandera* Orion egin zuten. Egun hartan gertatu zen Orion bere historia osoan herrian izan den militarren elkarretaraterik handiena. Plazatik arrantzaleen kofradiaraino dena soldaduz bete zen, konpainia konpainiaren atzetik.

*Adoracion nocturna* Orion, aurrena, 1956an egin zen, urriaren 20tik 21erako gauean. Ospakizun handia izan

zen, Gipuzkoako agintari eklesiastiko, politiko eta militarrek izan ziren Orioko plazan. Bertan aldare bat zegoen jarrita, eta herriko balkoiak gurutzez apainduta. Egun hartan herritarrek egun osoko baraualdia egin zuten, ezin izan zuten ezer jan ez edan. Horretan salbuespen izan ziren tripleak, gaueko ekitaldiko kantuei ahotsa jarri behar zieten haur eta gaztetxoak. Haien baimena izan zuten, gotzainak sinatua, kafesnea hartzeko, gaueko laurak alde-ira egin zuten kantu saiora iritsi ahal izateko. Ondo gogoratzen da horretaz egun hartan 10 urte zituen Jose Manuel Arrillaga. Horrelaxe ziren orduan gauzak.

[ IÑAKI ITURAIN ]

## » JAIOTAKOAK

■ Ez da jaiotzarik izan.

## » EZKONDUTAKOAK

■ Maider Lopetegi Azkue eta Oihan Lizaso Elgarresta, Orion, urriaren 7an.

## » HILDAKOAK


■ Joakin Arostegi Iturzaeta, Orion, urriaren 9an. 96 urte.  
 ■ Maria Makazaga Gozategi, Orion, urriaren 8an. 82 urte.  
 ■ Maria Lizaso Azpeitia, Orion, urriaren 7an. 94 urte.

## Ana Belen G. de Txabarri Iribar

andrea

2010ko urriaren 3an hil zen, 51 urte zituela.

Familiak esker ona agertu nahi die egun hauetan ondoan lagun izan diren guztiak. Bihotz-bihotzez, eskerrik asko.



**Gaban**  
 TABERNA  
 Plater kurtza apintxoak  
 Tfnoa: 943 83 06 09

**Goizeko**  
 KAFETECIA  
 943 83 28 55  
 AIA Erburuti, 33 behean ORIO  
 Autobus parada ondoan

**INDO**  
 Garraio frigorifikoa  
 NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA  
 Olaekoetia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

# “Gutxi ekoiztu arren, gazta naturala eta mimatua egin nahi dugu”

**Patricia Balerdi**

Gaztagilea

Orioko Longa baserrian hasi ziren gazta egiten Patricia eta bere mutil lagun Igor eta, Kukuarriren magalean egonda, mendiaren izena eman zioten gaztari ere. Baina han lursail txikia zuten, Aiako lurretara aldatu ziren gero; han dute gaztandegia egun

## IRATIAGIRREAZALDEGI

Donostiarra da Patricia Balerdi, baina ardi eta gaztaren usainean Orio aldera, Longa baserrira, etorria. Orain Aian, Etxaben, bizi da mutil lagun Igorrekin eta Intza alabarekin. Ukuilua dute etxe alboan eta baita gaztandegia ere.

### Nolatan hasi zinen gaztagintzan?

Mutilaren gurasoek baserria zuten eta, hasieran, oilo batzuk eta ahuntzak jarri genituen. Ardiekin hasi ginela badira 15 urte pasa. Lesakatik artalde txiki bat ekarri genuen; sasardiak ziren gehienak. Gero, orain dela 10 urte-edo, Igor Artzain Eskolan ibili zen. Ondoren, kontu honekin aurrera egitea erabaki genuen eta orain 300 ardi inguru dauzkagu.

Hutsetik hasi behar izan ginen, artalde sortu, ukuilua egin... eta gaztandegiarekin pixkanaka ari gara. Honetatik

bizitzeko apustu gogorra egin behar da eta oso arriskutsua da. Ezagutzen dugu gaztagile bat hozkailuan arazoak izan eta 4.000 kilo bota behar izan zituena.

### Orioko gaztagile bakarrak zarete?

Gure asmoa zen ukuilua Orion jartzea. Donejakue bidea pasatzen da eta gazta saltzeko puntu egokiagoa izan zitekeen. Gainera, etxea genuen eta erosoagoa zen, baina Aian lursail handiagoak genituen eta badira hiru urte Aian gaudela.

### Nolako gazta egiten duzue?

Ardi latxak ditugu eta Idiazabalgo gazta egiteko jarraitzen diren pausoak segitzen ditugu. Gazta egiten ikasteko, Arantzazuko Artzain Eskolan egin nuen ikastaro bat. Ekoizpen txikia egiten dugu eta gure nahia da artzain gazta egitea eta noizbait, ahal izanez gero, ekologikoa; baina horrek lursail handiagoak eska-

tzen dizkigu. Oso zaila da guztien gustua egitea, baina jendeak gazta gaztea eskatzen digu gehienetan.

### Non saltzen duzue zuen gazta?

Orion eta inguruan baino gehiago, Tolosaldean edo Donostialdean. Ahoz ahoko formula erabiltzen dugu salmentarako, lagun eta ezagunen artean zabaltzen ditugu gaztak. Aurten 1.500 kilo gazta egin dugu, 1.200 gazta inguru. Gure asmoa da 2.000ra iristea. Aian gaztagile gehiago dira eta, jendea gazta batera ohitzen denean, zaila izaten da aldatzea.

### Artzaintza asko aldatu al da?

Badira mendira ardiekin joan, txabolan bizi eta gazta egiten dutenak garai bateko erara, baina gauzak aldatu dira eta gu modu berrian hasi gara. Hala ere, gure asmoa da ahalik eta gastu gutxienekin eta antzinako artzainen erara gerturatuz, ekoizpen txikia egin arren, gazta naturala eta mimatua egitea. Ekoizpen

## “Longa baserrian hasi ginen eta gure asmoa zen ukuilua Orion jartzea; baina Aian lursail handiagoak genituen badira hiru urte Aian gaudela”

“Orion baino Tolosaldean edo Donostialdean saltzen dugu. Aian gaztagile gehiago dira eta jendea gazta batera ohitzen denean zaila da aldatzea”

handia egiten dutenekin lehiatzea zaila da eta ez dugu horretan sartu nahi. Orain, askok, Gabonetako prezioa aprobetxatzeko asko aurreratu arren, guk belardi onak ditugu eta udaberriko belarra aprobetxatu nahi dugu. Modu ekologikoan ari direnak ere horrela aritzen dira eta sariak jaso dituzte.

### Aurrerantzean zein asmo duzue?

Pixkanaka hobera egitea eta, horretarako, besteak beste, atzetik datozen ardiak uzten ari gara hobeak etorriko direlakoan. Ardi kopurua ere jaitsi nahi dugu: gazta kopuru berdina ekoizti baina ardi gutxiagorekin. Lagun batek dio pentsatu behar dela handi eta gero egin txiki. Nahi duguna da ardiek ematen duten lana eta gure eguneroko bizimodua orekatzea. Atzerapausoa dirudien arren, nahiago dugu txikiagora joatea, gauzak ondo eta mimosaz egitea.



KARKARA

» AZOKA

**Iragarkietarako txokoa.** Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

**Alokairua**

■ Pisukide bila nabil, Orioko Abeslari kaleko etxe batean bizitzeko. Tf: 691 31 22 40 (Jon).  
 ■ Etxebizitza berria alokatzeko, Armendigain kalean, Aian. Hiru logela, bi bainugela, garajea eta jangela ditu. Tf: 629 68 04 10.  
 ■ Orion alokatzeko pisu bila nabil, urte osorako. 676 28 25 88 edo, lan orduetan, 943 83 15 18.

**Salgai**

■ Garaje bikoitza salgai Erribera kalean. 38 metro koadro. 63.000 euro. Tf: 636 38 66 63 / 607 58 08 41.  
 ■ Duplexa salgai Arrantzale kalean. Tf: 670 90 04 23.  
 ■ Etxea salgai Eusko Gudarin. Handia eta go-

xoa da eta ganbara ederra ere badu. Tf: 639 20 27 64.

**Galdutakoak**

■ Belarritako biribilak galdu nituen irailaren 25ean, Arkaitz tabernaren parean. Oso maiteak ditut eta aurkitu dituenak dei dezala mesedez 600 71 92 51ra.  
 ■ Sakelako telefono bat agertu zen Orioko kultur etxean duela hilabete. Ja-beak bertan jaso dezake.

**Lan eskaintzak**

■ Batxilergoko ikaslea LH eta DBHko lehen zikloko ikasleei klase praktikularak emateko eskaintzen da. Interesatuek deitu 600390238ra (Goiuri). Tf: 608 16 49 71 (Amaia)  
 ■ Ingeniari teknikoak haur

eta gaztetxoentzat klase partikularrak eskaintzen ditu. Tf: 608 16 49 71 (Amaia).  
 ■ Pertsona euskalduna eta arduratsua behar da Debagoieneko enpresa batean kudeatzaile aritzeko. Ordutegi malgua; etxetik egin daiteke planifikazio lana; kilometrajea ordaintzen da. CV-a eureka@gmail.com-era bidali.  
 ■ Orion bizi den emakume marokoarrak lan egin nahiko luke etxeak edo lokalak garbitzen, edade-tuak zaintzen edo jatetxe edo taberna bateko sukaldetan laguntzaile moduan. Garbiketa lanetan eskarmentua badu. Tf: 667 91 53 98.

» ITSASOA

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
15	09:38 eta 22:33	03:37 eta 16:30	
16	11:13 eta	04:14 eta 18:23	
17	01:02 eta 13:37	06:40 eta 20:13	
18	02:39 eta 14:55	08:33 eta 21:06	
19	03:36 eta 15:44	09:20 eta 21:51	
20	04:10 eta 16:16	09:50 eta 22:22	
21	04:37 eta 16:43	10:14 eta 22:49	
22	05:00 eta 17:08	11:06 eta 23:14	
23	05:23 eta 17:33	11:29 eta 23:39	
24	05:46 eta 18:00	11:53 eta	
25	06:12 eta 18:29	00:06 eta 12:20	
26	06:40 eta 19:00	00:35 eta 12:50	
27	07:11 eta 19:36	01:06 eta 13:23	
28	07:46 eta 20:16	01:42 eta 14:00	
29	08:27 eta 21:05	02:22 eta 14:45	

» ZAINTZAKO BOTIKAK

URRIA	Azaldegia
■ 15ean, Azaldegia.	■ Azaldegia: Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz
■ 16an eta 17an, Lasa.	■ Etxeberria: Gipuzkoa kalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz
■ 18tik 22ra, Lasa.	■ Mutiozabal: Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz
■ 23an eta 24an, Iriarte.	■ Larrañaga: S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz
■ 25ean, Etxeberria.	■ Lasa: Herriko plaza. 943 83 09 36 Orrio
■ 27an, Mutiozabal.	■ G. Artiano: Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz
■ 28an, Zulaika.	■ Iriarte: Zinkunegi, Pilar txo Enea. 943 13 29 83 Zarautz
■ 29an, Iriarte.	■ Zulaika: Bizkaia kalea, 41. 943 13 39 94 Zarautz
■ 30ean eta 31n, Larrañaga.	
■ Jean, Mutiozabal.	
■ 2an, Etxeberria.	
■ 3an, Zulaika.	
■ 4an, Iriarte.	
■ Sean, Larrañaga.	
■ 6an eta 7an, Azaldegia.	

» TREN ORDUTEGIAK

DONOSTIA-ZARAUTZ

Donostia	5:47	6:17	6:47	7:17	7:47	8:17	8:47	9:17	10:47	11:47	12:17	12:47	13:17	13:47	14:17	14:47	15:17	15:47	16:17	16:47	17:17	17:47	18:17	18:47	19:17	19:47	20:47	21:47
<b>Aia-Orio</b>	<b>6:11</b>	<b>6:41</b>	<b>7:11</b>	<b>7:41</b>	<b>8:11</b>	<b>8:41</b>	<b>9:11</b>	<b>10:11</b>	<b>11:11</b>	<b>12:11</b>	<b>12:41</b>	<b>13:11</b>	<b>13:41</b>	<b>14:11</b>	<b>14:41</b>	<b>15:11</b>	<b>15:41</b>	<b>16:11</b>	<b>16:41</b>	<b>17:11</b>	<b>17:41</b>	<b>18:11</b>	<b>18:41</b>	<b>19:11</b>	<b>19:41</b>	<b>20:11</b>	<b>21:11</b>	<b>22:11</b>
Zarautz	6:19	6:50	7:20	7:50	8:20	8:50	9:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20

ZARAUTZ-DONOSTIA

Zarautz	6:08	6:38	7:08	7:38	8:08	8:38	9:08	10:08	11:08	12:08	12:38	13:08	13:38	14:08	14:38	15:08	15:38	16:08	16:38	17:08	17:38	18:08	18:38	19:08	19:38	20:09	21:09	22:09	22:38
<b>Aia-Orio</b>	<b>6:15</b>	<b>6:45</b>	<b>7:15</b>	<b>7:45</b>	<b>8:15</b>	<b>8:45</b>	<b>9:15</b>	<b>10:15</b>	<b>11:15</b>	<b>12:15</b>	<b>12:45</b>	<b>13:15</b>	<b>13:45</b>	<b>14:15</b>	<b>14:45</b>	<b>15:15</b>	<b>15:45</b>	<b>16:15</b>	<b>16:45</b>	<b>17:15</b>	<b>17:45</b>	<b>18:15</b>	<b>18:45</b>	<b>19:15</b>	<b>19:45</b>	<b>20:15</b>	<b>21:15</b>	<b>22:15</b>	<b>22:45</b>
Donostia	6:39	6:50	7:20	7:50	8:20	8:50	9:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20	

Gipuzkoan garraiatzeko begira: www.mugitu.com. Grisez dauden orduetan trenak daude asteburuetan.

» AUTOBUS ORDUTEGIAK

LANEGUNETAN

DONOSTIA-ZARAUTZ

Donostia	6:55	7:40	8:10	8:40	9:10	9:40	10:40	11:40	12:10	12:40	13:10	13:40	14:10	14:40	15:10	15:40	16:40	17:40	18:10	18:40	19:10	19:40	20:15	21:00	22:15
<b>Orio</b>	<b>7:25</b>	<b>8:15</b>	<b>8:45</b>	<b>9:15</b>	<b>9:45</b>	<b>10:15</b>	<b>11:15</b>	<b>12:15</b>	<b>12:45</b>	<b>13:15</b>	<b>13:45</b>	<b>14:15</b>	<b>14:45</b>	<b>15:15</b>	<b>15:45</b>	<b>16:15</b>	<b>17:15</b>	<b>18:15</b>	<b>18:45</b>	<b>19:15</b>	<b>19:45</b>	<b>20:15</b>	<b>20:50</b>	<b>21:35</b>	<b>22:50</b>
Zarautz	7:35	8:25	8:55	9:25	10:25	11:25	12:25	12:55	13:25	13:55	14:25	14:55	15:25	16:25	17:25	18:25	19:25	19:55	20:25	21:00	21:45	23:05			

ZARAUTZ-DONOSTIA

Zarautz	6:45	7:15	7:45	8:15	8:45	9:20	9:45	10:45	11:45	12:45	13:20	13:45	14:20	14:45	15:20	15:45	16:45	17:45	18:45	19:45	20:45	21:15			
<b>Orio</b>	<b>6:55</b>	<b>7:25</b>	<b>7:55</b>	<b>8:25</b>	<b>8:55</b>	<b>9:30</b>	<b>9:55</b>	<b>10:30</b>	<b>10:55</b>	<b>11:55</b>	<b>12:55</b>	<b>13:30</b>	<b>13:55</b>	<b>14:30</b>	<b>14:55</b>	<b>15:30</b>	<b>15:55</b>	<b>16:30</b>	<b>16:55</b>	<b>17:55</b>	<b>18:55</b>	<b>19:30</b>	<b>19:55</b>	<b>20:55</b>	<b>21:25</b>
Donostia	7:30	8:00	8:30	9:00	9:30	10:10	10:30	11:10	11:30	12:30	13:30	14:10	14:30	15:10	15:30	16:10	16:30	17:10	17:30	18:30	19:30	20:15	20:30	21:30	22:00

Lanegunetan, grisez dauden orduetako autobusak pasatzen dira Urbiletik.

ASTEBURUETAN

DONOSTIA-ZARAUTZ

Donostia	8:00	9:00	10:00	11:00	12:00	13:00	14:00	15:00	16:00	17:00	18:00	19:00	20:00	21:00	22:00	22:30
<b>Orio</b>	<b>8:35</b>	<b>9:35</b>	<b>10:35</b>	<b>11:35</b>	<b>12:35</b>	<b>13:35</b>	<b>14:35</b>	<b>15:35</b>	<b>16:35</b>	<b>17:35</b>	<b>18:35</b>	<b>19:35</b>	<b>20:35</b>	<b>21:35</b>	<b>22:35</b>	<b>23:05</b>
Zarautz	8:45	8:45	9:45	10:45	12:45	13:45	14:45	15:45	16:45	17:45	18:45	19:45	20:45	21:45	22:45	23:15

ZARAUTZ-DONOSTIA

Zarautz	6:45	7:45	8:45	9:45	10:45	11:45	12:45	13:45	14:45	15:45	16:45	17:45	18:45	19:45	20:45	21:45
<b>Orio</b>	<b>6:55</b>	<b>7:55</b>	<b>8:55</b>	<b>9:55</b>	<b>10:55</b>	<b>11:55</b>	<b>12:55</b>	<b>13:55</b>	<b>14:55</b>	<b>15:55</b>	<b>16:55</b>	<b>17:55</b>	<b>18:55</b>	<b>19:55</b>	<b>20:55</b>	<b>21:55</b>
Donostia	7:30	8:40	9:40	10:40	11:40	12:40	13:40	14:40	15:40	16:40	17:40	18:40	19:40	20:40	21:40	22:40

Asteburuetan, autobus guztiak pasatzen dira Urbiletik. Grisez dauden orduak larunbatetako (lanegunak) zerbitzuei bakarrik dagozkie.

Aia eta Orio arteko autobus zerbitzua Landabusek darama. Zerbitzuei buruzko informazioa lortzeko zenbait bide daude: [www.landabus.com](http://www.landabus.com), Tf. 943 240114 sms-a 5280 zenbakira





## Bengoetxearen arte lanak

Eskulan eskolak ematen ditu Mertxe Bengoetxeak eta baita ikasleen lanak urtean behin ikusgai jarri ere. Bere artelanak, ordea, ez ditu inoiz jendaurrean erakutsi. Orain, ordea, urriaren 8tik 29ra bitartean Bengoetxearen zeramikak eta oleoan zein akrilikoan egindako koadroak, guztira 40 lan inguru, ikusgai izango dira 10:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 20:00etara kultur etxean.

man. Etxeluzeko gaztetxean  
10:00etan.

### Irteera

■ Urriaren 16an, Orioko Herri Ikastolak antolatuta, perretxi-kuetara irteera. 08:30ean, ikastola aurrean.

### Bestelakoak

■ Urriaren 29an, euskal presoak Euskal Herriratzearen aldeko elkarretaratze isila. 20:00etan, herriko plazan.

## Orio

### Musika

■ Urriaren 21ean, Oteizaren jaiotzaren urteurrena ospatzeko Oskarbi taldearen kontzertua. Oteizaren eta Gandiagaren poemetan oinarritutako kantez gain beren errepertorioa ere eskainiko dute. 19:00etan, kultur etxean.  
■ Urriaren 21ean, Citizen Kane talde oriotarraren kontzertua Bartzelonako Destino Final taldearekin. 21:00etan, Zauruzko Putzuzulo gaztetxean.

### Ikastaroak

■ Urriaren 26tik ekaina arte, sendatze holistikoari buruzko ikastaroa. Prezioa: saioko 15 euro. 19:00etatik 21:00etara, asteartero, Mandalararen lokalean -Iturbide, 7-. Izena emateko: kultur etxean edo e-

posta honetan:  
mandalarataldea@gmail.com

■ Ekaina arte, haurrentzako eta helduentzako margo ikastaroa. Irakaslea: Marijose Iparragirre. 16:45etik 18:00etara, haurrak; 18:00etatik 19:15era, helduak; biak Ibaiondo kaleko lokalean.  
■ Eskulanan ikastaroak Ostar-girekin: jantzigintza, patchwork, errematea, margoa, gantxilloa eta bolilloak. Eguzker, astelehenean ostiralera, 09:30etik 11:30era, 15:00etatik 17:00etara eta 17:00etatik 19:00etara, kultur etxeko beheko solairuan.

### Kirola

■ Saskibaloian, urriaren 22an, 3. mailako Gipuzkoako kategorian: Alustiza Autobusak/Orio-DKS, 20:15ean, Karela kiroldegian; urriaren 24an, errendimenduko kadete nes-

ken kategorian: Orioko Ikastola ZKE- Eskoriatza K.E, 11:00etan, Karelana.

■ Futboleko, urriaren 16an eta 17an, preferentean: Antzuola-Orio; Jubenilen lehenengo kategorian: Lengokoak-Orio; Kadeteen lehenengo kategorian: Urola-Orio; Infantilen ohorezko kategorian: Orio-Real Sociedad; Emakumezkoen jubenil kategorian: Intxaurdi-Orio.

### Traste zaharrak

■ Urriaren 27an, altzari zaharrak jasoko dituzte. Bezperan utzi behar dira edukiontzien alboan.

### Gaztetxea

■ Urriaren 16an, auzolana gaztetxean. Etxeluze txukuntzeko eta konpontzeko arropa zikinarekin joan eta lanerako erremintarik izanez gero era-

## Aia

### Podologia

■ Azaroaren 13an. Ordua hartzeko udaletxean eman behar da izena. Tf: 943131144.

### Silo-bolen bilketa

■ Azaroaren 9an. Zerbitzua-aren inguruko informazioa jasotzeko Urkomera deitu. Telefono zenbakia: 943816500. Bestela, Igorrekin, zerbitzua-aren arduradunarekin, hitz egin: 660049751.

KONTRAPORTADA:

MARIXABEL ETXEBERRIA

